

URDAIBAI

10
urte

2024
zenb. 38
.....

© MAGAZINE



EUSKAL KOSTALDEAN MARRAZOAK EZAGUTUZ

| DONEJAKUE BIDEA URDAIBAIN

| ELANTXOBE, ITSASO JAGOLEA

| ALKARRIZKETA, OLATZ SAITUA NEURRIZ,
PAUSURIK PAUSO, AGERTOKI HANDIETARAINO

| FORUKO FRANTZISKOTARREN
FRAILE-ETXEA, 1719-2024

| ALKATE MALLONA. KONPROMISOA ETA
SAKRIFIZIOA IDEALENGAITIK

| HEMEN MOJOJOI ESATEN DA



kutxabank

3.000€
EDO GEHIAGO:
ITN: %6,99
UTB: %7,22*

10.000€
EDO GEHIAGO:
ITN: %5,99
UTB: %6,16*

25.000€
EDO GEHIAGO:
ITN: %4,99
UTB: %5,11*

ONLINE MAILEGUA

%0ko IREKIERA KOMISIOA.

2024ko IRAILAREN 30era ARTEKO KONTRATAZIOETARAKO KANPAINAREN BALDINTZAK. INFORMA ZAITEZ KUTXABANK.ES WEBGUNEAN.


• 3.000 €tik GORAKO ZENBATEKOAN, 9.999 €ra ARTE, ITN: %6,99, UTB: %7,22. FRANTZIAKO AMORTIZAZIO SISTEMA. IREKIERA KOMISIOA: %0. ADIBIDEZ, 3.000 € ETA 36 HILABETERA BITARTEKO MAILEGURAKO. HILEKO KUOTAK: 92.62€ (AZKEN KUOTA: 92.55€). INTERESAK: 334,25€. KOSTUA, GUZTIRA: 334,25€.
 ZOR DEN ZENBATEKO, GUZTIRA: 3.334,25 €.

• 10.000 €tik GORAKO ZENBATEKOAN, 24.999€ra ARTE, ITN: %5,99, UTB: %6,16. FRANTZIAKO AMORTIZAZIO SISTEMA. IREKIERA KOMISIOA: %0. ADIBIDEZ, 10.000 € ETA 72 HILABETERA BITARTEKO MAILEGU BATERAKO. HILEKO KUOTAK: 165,68€ (AZKEN KUOTA 165,85€). INTERESAK: 1.929,13€. KOSTUA, GUZTIRA: 1.929,13€.
 ZOR DEN ZENBATEKO, GUZTIRA: 11.929,13€.

• 25.000 € EDO GEHIAGORAKO, ITN: %4,99, UTB: %5,11. FRANTZIAKO AMORTIZAZIO SISTEMA. IREKIERA KOMISIOA: %0. ADIBIDEZ, 25.000 €

ETA 84 HILABETERA BITARTEKO MAILEGU BATERAKO. HILEKO KUOTAK: 353,23 € (AZKEN KUOTA 353,25 €). INTERESAK: 4.671,34€. KOSTUA, GUZTIRA: 4.671,34€.
 ZORDUNDUTAKO ZENBATEKO, GUZTIRA: 29.671,34€.

UTB ALDATU EGITEN DA, ZENBATEKOAREN ARABERA INTERES TASA DESBERDINAK DAUDELAKO. KONTSUMORAKO MAILEGUA ONLINE KONTRATATZEKO ESKAINTZA, MAILEGUA AURRETIK EMANDA DAUKATEN ETA 2024/09/30era ARTE EGINGO DUTEN BEZEROENTZAT BALIAGARRIA. ONLINE ESKATU DAITEKEEN GEHIENEO ZENBATEKO: 60.000 €. EPEAK: 6 HILABETETIK 84 HILABETERA. ERAKUNDE MAILEGU EMAILEAREN ONESPENA ETA ALDEKO AZTERKETA BEHARREZKOAK IZANGO DIRA. KANPOAN GERATZEN DIRA KONTSUMORAKO EZ DIREN MAILEGUA ETA BERFINANTZAKETAK.



Espainiako Bankuak gainbegiraturako erakundea. Erakunde mailegu-emailea: **Kutxabank SA**, Kale Nagusia 30-32, 48009 Bilbo. IFZ: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Liburukia, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1. Folioa, 1. Inskripzioa.

INFORMAZINOIA ETA EZTABAIDA

Eztabaidak pentsamentu kritikoa sustatzen dau, hainbat ikuspegi ulertzeko aukerea emoten dau eta hezkuntzarako baliotsua da. Eztabaida eraikitzailea eta aberasgarria izan daiten, funtsezkoa da debatea informazino fidagarrian oinarrituta egotea. Informazinoia emotea eta interpretaziorik ez egitea erronka handia da eta Urdaibai Magazineko zenbaki bakoitzean erronka horri eusten deusagu. Gure helburua da gure komunitadean agertzen diran kezken gaineko gaiak jendeari hurbiltzea eta, batez be, gure inguruko balioak ikusaraztea, unea gaintitzen dauen ikuspegiagaz. Ez gara eguneroko komunikabide bat, eta, beraz, gaien mamina jorratzen dogu. Gai horreek ikuspegi iraunkor eta adierazgarriagaz lantzen saiatzen gara.

Irakurleekiko kezka pil-pilean dago zenbaki bakoitzean ze gai sartu erabakitzean. Geure kezka ez dago lotuta ildo editoriala desfokatzeko arriskuari, baizik eta dibulgazino-aldizkari interesgarri bategaz publiko zabal batengana iristeko asmoari, komunitade informatu eta parte-hartzaile bat eratzen laguntzeko.

Partaidetza eta interakzino soziokulturala eta eretxiak eta kezka adierazteko gaitasuna eta aukera ezinbestekoak dira alkarbitzarako eta tokiko demokraziaren garapenerako. Urdaibai Magazinegaz horretan laguntzea espero dogu.

AURKIBIDEA



04

16

28

20

36

32



ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L
 Carlos Gangoiti, 15, behea
 Gernika-Lumo (Bizkaia)
 nuevaeuropa@nuevaeuropa.es
 www.nuevaeuropa.es

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:
 urdaibaimagazine@nuevaeuropa.es
 tel: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.es

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

Azaleko argazkia Isaias Cruz (Mako Pako)-rena da .

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

PUBLIKAZIOA DATA: 2024.07.30

04 ERREPORTAJEA. Donejakue Bidea Urdaibain

10 DANONARTEAN.

16 VISIT URDAIBAI. Elantxobe

20 ALKARRIZKETA. Olatz Saitua
 Abeslari liriko

26 LEKUKO. Foruko Frantziskotarren fraile-etxea

28 KALERIK KALE. Alkate Mallona

32 ZIENTZIAN. Marrazoak ezagutuz, euskal kostaldean

36 SALTSA PORRU. "Mojojoiak"

40 BERDEAN. Baso-barritzearen indarra

44 LABUR LABUR.





Donejakue bidea Urdaibain

Oinez egiten da bidea...

Busturialdea-Urdaibairentzat, bere historian barrena ibiltea da "Bidea"-ren parte izatea. Europako ibilbide kultural nagusieneko kate-maila bat gara, eta aberastasuna emoten deutsegu Santiagora heltzeko Euskadi zehartzea erabagiten dabenei. "Itsasaldeko Bidea" izenekoaren 5. eta 6. etapek gure eskualdea zehartzen dabe: aukera parebakoa milurteko ibilpide honetatik datozenek gu ezagutzeko.

Pausu asko emon dira Asturiaseko Alfontso II.a Kastoia, IX. mendean, eta, geroago, Puyko Godescalc gotzaina, Compostelako Donejakuerako historiako lehenengo erromesa eta X. mendeko erromesik ospetsuena izan ziranetik, hurrenez hurren. Hareen atzetik milaka ibiltari ahalegindu dira helmuga berera ailegetan; helmuga espirituala batzuentzat, eta fisikoa eta ludikoa besteentzat. Izan be, lehen pausu horreek emon eta berrehun urtera (XII. mendean), gutxi gorabehera, 1140an, zenbait egilek *Codex Calixtinus* idatzi eben. Aymeric Picaud monje beneditarrak idatzi ei eban V. liburua, Donejakue Bideko Erromesaren Gida. Picaudek, Kalisto aita santuaren idazkari lez, Erdi Aroko kristau-herriaren hiru erromesaldi handiak egin ebazan: Compostela, Erroma eta Jerusalem. Compostelara egindako bigarren bidaian gida bat prestau eban, eta ibilpidean topau eikeana jaso eban bertan: santutegiak, erlikiak, ohiturak, tradizioak, bidea igaroten zan lurraldeetako biztanleen deskribapena eta euskarazko esamoldeen hiztegi txiki bat be, latinezko baliokideakaz. Kontakizun horri esker, badakigu Euskadi Bidea-ren parte zala hasieratik.

Bidearen historia IX. mendean, hasi zan, Pelayo izeneko artzain batek apostoluaren gorpua aurkitu ebanean (823. urtean)

JATORRIA

Erromesaren lehenengo gida haren arabera, Compostelan lurperatuta dagoana Zebedeoren seme Jakue da (Jakue Nagusia apostolua), eta hilobiari "*usain jainkotiarra erion eta argi zerutiarrakaz argitzen zan*". Hor sortu zan kondairea eta apostoluaren omenezko mausoleoraino erromesaldia egiteko ohiturea.

Donejakue Bidearen historia Erdi Aroan hasi zan, IX. mendean, Pelayo izeneko artzain batek apostoluaren gorpua aurkitu ebanean (823. urtean). Itxuraz, mirakulu baten emoitza izan zan aurkikuntza, artzaina zeruko distira batzuek gidatuta joan zan-ta leku jakin horretara. Alfontso II. erregeak, Oviedotik apostoluaren hilobiraino Bidean lehen urratsak egin ebazanek, tenplu bat eregiteko agindu eban, Santiagoko Katedralaren jatorria, gorpuzkinak gordeteko eta bisitea duintzeko. Bidearen hasiera hartan fede kristauak mugiduarazoten ebazan erromesak; igarobide edo bide mingarria zan, jatorrizko pekatuagaitik ordaindu beharreko prezioaren sinbolo lez. Osasuna

eskatzea, promesa bat betetea, fedea indartzea, penitentzia egitea... Gaur egun, fedeagaitik dabilzen erromesek horreetakoren bat daroe motxilan.



Donejakue Bidea, Urdaibain (Arratzu)

"Bidaiari" bihurtutako erromesak erronka bat gainditu gura dau, abentura bat bizi, lekuak ezagutu eta beste erromes batzuek edo zehartzen dabean herrietako biztanleak harreman zuzena euki eta aberastu.

Baina, zenbat bide dago? Eta zergaitik dago Busturialdea-Urdaibai trazaduran?

ERROMES ADINA BIDE

Esan lei Donejakue Bidea bat dala baina erromesek egiten dabean ibilpideak asko eta askotarikoak dirala. Europa osoan ehunka dira, eta Espainian berrogeita hamar baino gehiago. Bide nagusiak Frantziako Bidea¹ eta Jatorrizko Bidea² dira.

Zelan bihurtzen da ibilpide bat Bidea-ren parte? Baldintza nagusia da erromesak bertatik igaro izanari buruzko historia dokumentaua eukitea, ibiltariei harrerea egiteko guneakaz: ospitaleak, aterpeak... Halan sartu da Busturialdea-Urdaibai milaka urteko ibilpide horretan. Gure eskualdea Iparraldeko Bidea deitutakoaren parte da. Frantziako Bideagaz batera,

2015ean Gizateriaren Ondare izentautako ibilpideen moltso bat da. Honako honeek osatzen dabe **Iparraldeko Bidea**³: **Itsasaldeko Bidea** (Irundik Santiagora), Jatorrizko Bidea (Oviedotik Santiagora), Liebanako Bidea (Liebanako Santo Toribiora) eta **Euskal Herriko Barnealdeko Bidea** (Itsasaldeko Bidea eta Frantziako Bidea lotzen ditu Euskal Herriaren eta Errioxaren parean).

Askoz be ibilpide gehiago dagoz, baina ez dira Gizateriaren Ondare. Esaterako, Portugalgo Bidea, Zilarrezko Bidea, Ingeles Bidea eta Sanabriako Bidea.

URDAIBAI, BIDEAN

Erromesak gure eskualdetik igarotzea ez da kontu barria, Compostelako Donejakuerako ibiltariak Erdi Arotik igaro dira ta. Garai historiko hartan, antzinako ibilpide erromatarrek erabiltzen ziran komunikazio-bide modura, eta horreek bat datoz, neurri handi baten, Bizkaiko itsasaldeko Donejakue bideagaz. Frantziatik Gipuzkoa eta Bizkaia zehartzen ebazan itsasaldeko lehenengo bide ha arabiarren arriskutik

1 Frantziako bidea: Orreaga/Luzaidetik eta Somportetik barneratzen da Espainian, Garesen elkartzen dira biak eta penintsulako iparraldea zehartzen dau sortaldetik sartaldera, Santiagora iristeko. Gizateriaren Ondare izentau eben, eta hiru erromesetatik bik egiten daben bidea da.

2 "Jatorrizko bidea: Gizateriaren Ondarea da 2015etik. Oviedon hasten da, Asturiasko erresumako hiriburua zaharreen, eta sartalderantz egiten dau Santiago de Compostelarantz. Santiagora egindako erromesaldi batez gorde dan dokumenturik zaharrenean erabili zan ibilbidea da; zehazki, Asturiaseko Alfontso II.a Kastoia erregearenean.

3 Iparraldeko bideak: Donejakue bideen moltsoa. Itsasaldeko Bidea da ibilpide nagusia. Frantzia eta Espainia arteko mugan dauka abiaburua, eta Espainiako iparraldeko itsasalde osoa zehartzen dau. Galiziarra heldutakoan, Ribadeon, hego-sartalderantz egiten dau, Santiago de Compostelarantz. Busturialdea-Urdaibai ibilpide horren parte da. 2015ean Gizateriaren Ondare izentau eben.

XV. mendekoak dira Bizkaian "Bidea"-ren ganean egindako aipamen zaharrenak

iges egiteko erabiltzen zan. Nafarroako lurrak musulmanen mehatxupean egozan, eta Kantauriko itsasaldeko bidea zan seguruen.

Itsasaldeko ibilpidea Frantziatik sartzen da Irundik, Donostia, Zarautz eta Getariatik igarotzen da, eta, Bizkaian, Bolibar, Ziortza, Arbatzegi, Mendata, Arratzu, Ajangiz, Gernika, Morgia, Larrabetzu, Lezama eta Bilbo daukaz ardatz, besteak beste.

XV. mendekoak dira Bizkaian Bidea-ren ganean egindako aipamen zaharrenak. Urduñako Udal Artxiboko dokumentuetan, esaterako, Haitzetik igarotzeko modua arautzen zan, eta zehazten zan Compostelako Donejakuera erromesaldian joiazan fraide, eleizgizon eta erromeroei ez jakeela kobretan. Aitamen horreetako batek Bermeora garoaz: 1659an, Bordeleko gizon baten heriotza dago erregistrata *Sancti Spiritus* Ospitalean. Izan be, bertan hartzen ebezen erromesak. Antza danez, 1734an, Bordeleko beste erromes bat hil zan Bermeon, Bide-tik itzultzen ebilela. Beharbada, erromes hareek itsasoz ailegau ziran Bermeora.



Donejakue Bidea Artzubiko zubian.

Gure eskualdea "Bidea"-ri buruzko erreferentziaz josita dago, eraikin, tenplu, bidezidor eta galtzadetan.

BIDEA, PAUSURIK PAUSU

Bidea-k Itsasaldeko Bidearen 5. etapan egiten dau bat Busturialdea-Urdaibaigaz (guztira, 214,2 km daukaz Itsasaldeko Bideak). Ibilpidean itsasoa eta mendia buztartzen dira, hiriguneak eta landa-aldeak. Euskadiko Donejakue Bidearen ibilpide hau Hondarribitik abiatu eta Cobarónen amaitzen da, Kantabriako mugan. 5. etapa 89,7 kilometroan hasten da, Markina-Xemeinen. Etapa atsegin horretan, eta ibiltaria pinudi, landazabal eta bidezidor lasaigarrietatik joaten da, eta bideko mugarrietako bat dauka ikusgai, Ziortzako kolegiatea.

Mendatako Berriondo auzoak egiten deutse ondoetorria erromesei gure eskualdean. Gola ibaiaren ibilguak Zarra auzoagaz bat egiten dau, eta, hor, Zarra-benta taberna-jatetxe eta aterpetxeak harrerea egiten deutso ibiltariari, eta bidean geldialdia egiteko aukerea emon. Merezidau auzoaren goialdera doan aldatsa igotzea, San Pedro baseliza dotorea bisitau eta Montalban dorrerako bidea hartzea. Hor, erromesak momentutxu batez oinez ibiltari itxi, gelditu eta begiakaz egin daike ibilpidea, aurrean daukan ikuspegiaren zehar. Aurrera egitean, makina bat erromesek egindako urratsak egingo dauz berriz ibiltariak, Zarra auzoa eta **Arratzu** elizatea lotzen ebazan galtzada zaharren zati baten. Horretarako, Bidea-k Artzubiko milurteko harestia zehartzen dau, gaur egun be erromesek zapaltzen daben zubi erromaniko berezitik. Hain zuzen, Arratzun, Santo Tomas eleiza bikainaren ondoan, ibiltariak aukerea dauka haraneko ikuspegiakaz gozetako, ehun urteko artearen azpian indarbarritu bitartean.

Une batez etengo dogu kontakizuna, Arratzuko Santo Tomasek merezi dau eta. Ikerketa historikoen arabera, tenplua XII. eta XIII. mendeetan eregi eban Arrizua leinuak, eta XVI. mendean berreregi zan. Jatorrizko eleiza horretara galtzada bat heltzen zan, inguruan egindako indusketa arkeologikoen arabera. Halanda ze, erromesen igarobide bihurtu zan.

>>>

Elexalde auzotik (Arratzu) abietan dan kurutze-bideak Olatzarrako burdinola⁴ zaharragaz dauka loturea; aurrerago, erromesa apur bat desbideratu daiteke Loiola auzora ailegetako eta bertako herriko tabernan erromesaren kredentziala zigilatzeke. Barriz be kurutze-bidera joz, ibaia igaro ostean, bidezidor batek Marmiz auzoraino eroango dau ibiltaria, eta Mendatako udalerrian sartuko gara barrero. Hortik, Burgogana mendiko baso-pistetan barrena, **Ajangizeraino** joaten da. Herri-gunean helduta, erromesa Gernika-Lumorantz jatsiko da, etapa amaierara. **Gernika-Lumon**, Errenteria auzoak egiten deutse harrerea bisitariei. Portu-eremu lez izandako iraganari zor deutso izena. Herrigunera zubitik sartzen danak aukerea eukiko dau Santa Maria eleiza monumentalata miresteko, eta, beste geldialdi bat eginda, Gernikako Arbola eta Batzar Etxea bisitetako. Ordurako, eginda eukiko dauz ibilpide honetako 24,8 kilometroak.

ITSASALDEA ETA BARRUALDEA, BERTATIK BERTARA

Gernika-Lumok garrantzia dauka Donejakue bidean; horregaitik, deskribauko dogun Itsasaldeko Bidearen hurrengo etapeak, 6. etapeak, hemen dauka abia-burua. Gernika-Lumok garrantzia euki eban loturea eukalako Bermeo, Mundaka, Axpe-Busturia, Murueta eta Forutik doan bideagaz, itsasoz abiau ziranantzatz. Halanda ze, erromesek antxinako errege-galtzadea erabilten eban, Ardoaren eta Arrainaren ibilpidearen zati bat (GR 38). Gernika-Lumo Donejakue bideen bidekurutzea zan Bermeon lehorreratutako erromesentzat. Horrenbestez, Antiguako Santa Maria eleizearen ondoko ospitale baten hartzen ziran erromesak. Andra Mari eleizako portada gotikoa be beste xehetasun deigarri bat da, Jakue apos-

toluaren irudia dauka ta. Gaur egun, gezi beilegiek Donejakue bidea Gernikatik igaroten dala salatzen dabe; herriak daukazan erakargune nagusietan zehar. Erromesak turismo-bulegora be joan daitekez kredentziala zigilatzerata.

6. etapak 29,7 km daukaz eta Gernika-Lumotik Bilbora doa. Bidean, erromesak Busturialdea-Urdaibai eskualdea dauka bidaide, landa-aldeko bide eta bidezidorretatik. Bide-ak Gernika-Lumoko

asfaltoa laga eta Santa Luzia baseleizatik **Errigoitiraino** daroaz ibiltariak. Halanda ze, erromesa hiri-eremutik landa-aldera igaroten da, pista, auzo-bide eta baserrien artetik, Errigoitiko Pozueta auzora arte. Hortik, Gernika-Mungia errepedean dagoan lurpeko pasabidetik,

Morgako Gerekiz auzora helduko da. Bertan, ibiltariak San Esteban ermitan egingo dau geldialdia. Bizkaiko parrokiarik zaharrenetako bat izan zan. 1961ean sute handi bat egon zan, eta 1992an osorik eregi eban osterata. Ermita horretan, udalerriko aztarnarik zaharrenak topau dabez: erromatarren garai berantiarreko hiru hilari, Kristo ondoko IV. mendekotzat joak. Hilari horreen erreplikak baseleiza barrituaren horma batean dagoz jarrita. Hormetan erromesaren maskorra be ikusi daiteke, Donejakue bidearen sinboloa, erromesari bide onetik doala adierazoten deutsona. Hemen, milurteko ibilpideak eskualdeari agur esan eta Larrabetzu, Zamudio eta Bilborantz daroa erromesa, etapearen amaieran.

4 Olazarra burdinola. Mendatako Marmiz auzoko burdinola zaharra. Eusko Jaurlaritzaren ondare arkeologikoaren inbentarioan Arratxi Errota burdinola izenagaz agertzen da.

De Labayru, Estanislao J.: Historia General de Bizcaya. 3. liburukia. Bilbo, 1889, 412. or.

Bideak Itsasaldeko Bidearen 5. etapan egiten dau bat Busturialdea-Urdaibaigaz. Guztira, 214,2 km

Donejakue bide instituzionalizauenaren alboan, gure eskualdean badagoz beste ibilpide batzuk barrualdera sartzeko, portuetan barrena. Bermeok funtzino garrantzitsua euki eban Erdi Arotik. Dokumentuen arabera, Bermeo sarrerako portua zan monje irlandar eta bidaiari frantsesentzat, Compostelako Donejakuera joateko. Labayru historialariaren berbetan, XV. mendearen amaieran, Gaztelugatxen baegoan *"hospizio bat, erromesentzako hamabi ohegaz, eta ermitau bat jagole"*.



Donejakue Bidea Santo Tomas eleizan.

URDAIBAI, BIDEAN

Donejakue bidearen ibilpideak askotarikoa dira gure eskualdean be. Izan be, historialariek nabarmentzen dabe Arratzu ezinbesteko igarobidea zala Donejakue Bidearen Iparraldeko bidean, eta bertatik Gernika-Lumora joateko aukerea egoala Marmiz eta Ajangizetik, edo Loiola eta Uarkatik. Mendatako Loza auzoan (Zarabenta) bikoizten ei zan bidea, Montalban dorreren inguruan. Ibilpide hori baegoala defendiduteko argudioa da Eliezalde aitatzen dala dokumentuetan erromesentzako babesleku eta ehorzketa-leku lez, Santamañe baseleizeak komunikazino ezin hobea eukala Arratzuko bide guztiakaz, eta horrek zirkulazioa errazten ebala. Adar hori Zarrabentatik sartuko zan

Eleizaldera, Zubiate auzotik egingo eban aurrera (San Pedro baseleizea) eta Santamañe baseleizara joko eban. Hor, ermita biak lotzen dabezan *burdibidearen* (gurdientzako bidearen) errastua dago oraindakarren. Santamañetik Uarkara eta handik Gernika-Lumora.

Bidea-ren parte izatea beste aberastausun-iturri bat da, beste modu garrantzitsu bat da-ta eskualdeko erakargune turistikoak ezagutzeko. Horreek, harrerea egiteko eta atsedena emoteko zerbitzu egokiakaz batera, erromesak tentauko dabez euren Bidea-n geldialdia egiteko eta gozamenaren bidean abietako, Busturialdea-Urdaibain. **UM**

Ezagutu Gautegez Arteaga
pausoz pauso

GAUTEGEZ ARTEAGA
PAUSOZ PAUSO

AROTZ
Egurraren ibilbide turistikoa
Ruta turística de la madera



Bizkaitik Bizkai osora
informazioa zabaltzen dauan
euskarazko irratia

www.bizkaiairratia.eus



PUBLIERREPORTAJEA



ARRATZUKO

UDALA

LOIOLATIK BELENDIZERA DOAN BIDE HOBETUNTZA SAKONA

Arratzuko Udalak ahalegin handia egiten dau bere kudeaketan udalerriko bizimodua erraztuko dabean azpiegiturak hobetzeko. Irisgarritasuna faktore erabakigarria da eguneroko bizitzan, eta horregaitik garatu dau "Arratzu 2024ko udal-sareko bide-azpiegiturak hobetzeko proiektua". Proiektu honen helburua herriko erdigunea, Loiola auzoan, eta Belendiz auzoa (hegoalderantz) lotzen dauzen bidea hobetzea da. Bidearen higadura-seinale argiak ikusita (1.700 metro luze da), udalak uste dau komeni dala zoladura sendotzea. Bidean zehar, 23 jarduketa-eremu markatu dira, hau da, guztira 2.862m²-ko eremuan jardun behar da. Aurreikusitako obraren inbersinoa 77.425,37€-koa izango da, eta bertan, baserrietako arekak eta atalaseak fresauko dira eta hauen loturak egingo dira, eta gutxienez 5cm-ko lodierako aglomeradua ureztatu, zabaldu eta trinkotuko da.



BUSTURIKO

UDALA

GERREN GIZATASUN EZA ISLATZEN DAUEN ERAKUSKETA

Busturiako Udala Txekiako Hradistko herriagaz senidetu da. Bere Memoria Historikoaren kapitulu triste bera da herri bien arteko lotura, eta bi komunitadeentzat aberasgarriak diran proiektuak alkarregaz egiteko asmoa dauko. Funtsezko pausuak dira alkar ezagutzuz lortzen diran kultura-trukea eta alkar ulermena. Testuinguru honetan, lehen lankidetzak "Txikoria bedarrak loratzen ez zirenean" erakusketa da. Udal liburutegian irailaren 30era arte bisitatu daiteke. Txekiar Errepublikako Hradistko herriak izandako kontzentrazio-, lan- eta sarraski-esparruko sufrimendu ankerraren irudiak eta testigantzak batzen dauz erakusketak 20 paneletan. Han, gerraren biktimak sufridu eta hil ziran Alemania naziaren eskutik, tartean Anjel Lekuona busturitarra. Erakusketaren inaugurazioan, Hradistkoko erakundeetako ordezkariak parte hartu eben. Busturiara egindako bisita borobiltzeko, Busturialdea-Urdaibaiko txoko esanguratsuenetako batzuk bisitatu ebezan.

Gertuen dozun parlamentua Tu parlamento más cercano



Gernika



Abellaneda



Gerediaga



Bilbao

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA



www.jjggbizkaia.eus



ERRIGOITIKO

UDALA

FAROLAK BARRITZEA MADALEN AUZOAN

Errigoitiko Udalak, irailean, farolak barritzeko estrategiari ekingo deutso Madalen auzoan, argiteria publiko eraginkorra ezartzeko. Eguzki-panelak izango daben farola barriak hibridoak izango dira. Eguzkia dagoenean, eguzki-panelen energia hartzeagaz funtzionauko dabe, eta argi nahikoa ez dagoenean, sare elektrikotik hartuko dabe energia. Proiektuak auzoari zerbitzua emongo deutsoen hamar bat farola instalatzea barne hartzen dau. Auzo honetan berrogei persona inguru bizi dira. Madalen auzoan egingo dan esperientzia positibo hau, argiztapen ona eta aurrezpena izatea, proba pilotua izango da udalerriko beste toki batzuetan be lanean jarraitzeko. Errigoiti auzo sakabanatuez osatutako landa-udalerrria da, eta, bertan, udal-kudeaketa lanean ari da argiztapen eraginkorra ezartzeko. Argiztapen hori legegintzaldiko helburuetako bat da, bizi-kalidatea eta segurtasuna hobetzeko, garapen jasangarriko, ingurumen-erantzukizuneko eta trantsizino energetikoko erispi-deekaz.




FORUKO

UDALA

IRAUNKORTASUNAREN ETA ERAGINKORTASUNAREN ADIBIDEA

Foruko herriak ingurumenari eta iraunkortasun energetikoari buruzko ekimen asko egin dauz, eta, horregaitik, bertako alkate Mikel Magunazelaiak hizlari lez parte hartu dau Energia Komunitadeei buruzko Nazioarteko Udako Ikastaroan, Energia Iraunkorraren bidezko Ahalduntzea izenekoa. Magunazelaiak azaldu dau eraginkortasun energetikoaren alde eta ingurumena eta iraunkortasuna zaintzeko eta errespetatzeko udalerrriak egiten dauen lan garrantzitsua. Bere azalpenean azaldu ebanez, Forun ingurumenarekiko errespetua berezkoa da edozein erabakiri heltzeko orduan, eta adibide batzuk emon ebazan. Energia berdearen erosketa, autokontsumorako energia fotovoltaikoko plaken instalazioa edo bere energia soberakina auto elektrikoak kargatzeko erabiltzeko udalerrriak eskaintzen dauen zerbitzua izan dira aurkeztu dauzen proiektuetako batzuk. Egindako lehengoratze eta konserbazinorako ingurumen jarduerak eta laster egingo dabezenak be azaldu ebazan.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

UDAL COWORKING GELA EROSOA ETA MODERNOA

Gautegiz Arteagako Udalak lanean jarraitzen dau udalerrria toki bizi, erakargarri eta etenbarik aurrera egiten ari dan leku bihurtuko daben zerbitzuak gehitzeko. Ildo horretan, udal coworking-gela bat be gehitu dau herriko eskaintzara, hau da, partekatutako lan-espazio bat, jarduera profesionala hasten daben autonomoek euren lana egin ahal izan daiezan behar dan guztiagaz eta telelana aukeratzen dabenek be bai. Udaletxeko azken solairuan dago, eta 6 lanpostu hartzeko behar dan guztia dauko, interneterako konexioagaz eta bilera-gelagaz. Udalak zerbitzu hau eskaintzen deutse lan egiteko leku eroso, moderno eta lasaia behar daben herritarrei. Erabili gura dabenek udaletxera joan behar dabe eskaera egitera. Bestalde, bilera-gelako erreserbak *Gautegiz Arteaga Zabaltzen* udal aplikaziotik egin ahal izango dira.



GERNIKA-LUMOKO

UDALA

EGURALDI TXARRA EZ DA ARAZO IZANGO ZEHARRETAKO KIROLGUNEAN

Udalak inbersino handia egin dau Zeharretako kirol instalazioak hobetzeko, erabilera aukerak zabaltzeko, bereziki gazteen artean. 532.000€ bideratu dira 925 metro koadro inguruko estalkia jartzeko, euria egiten dauenean be kirola egin ahal izateko. Lanak hasi dira eta uda ostean bukatzea espero da. Ondoan dagozen Allende Salazar ikastetxeko eta Seber Altube ikastolako mila eta bostehun ikaslek baino gehiagok erabiltzen dabe egunero kirol-gune hau. Eskola-ordutegitik kanpo eta asteburuetan herritarrek be erabiltzen dabe kirola egiteko. Instalazioa bi mailatan banatzen da. Frontoi estalia, goialdean, eta behealdean, aire zabalean, areto futbolzaleentzako zelai zabal bat eta saskibaloirako bi kantxa. Estaltzeari esker eguraldi txarra ez da oztopo izango kirola egiteko.



IBARRANGELUKO

UDALA

ENERGIA-KOMUNIDADEAREN LEHEN PAUSUAK

Ibarrangeluko Udalak ingurumenarekiko eta jasangarritasunarekiko bere konpromisoa indartzen dau herritarrekaz batera. Estrategia horren esparruan, alkarregaz pausua emoten ari dira herriko energia-komunidade bat sortzeko. Garagarrilean, lehen herri-batzarra egin da. Bertan, prozesu horretan parte hartu gura daberen pertsonen zerrenda eguneratu da, eta energia-komunidade bat sortzeko zer esan gura dauen azaldu da. Ahalegin kolektibo publiko-pribatu horren helburua da mendekotasun energetikoa eta horri lotutako kostuak murriztea, eta, aldi berean, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-onurak sustatzea. Batzarran, energia-komunidade batek eskaintzen dauzen abantailez gain, honako alderdi hauek jorratu dira, besteak beste: norke parte har daiken, zein dan udalak prozesu horretan daukon funtzioa eta ze epe eta aukera daukezen pertsonen proiektu eraldatzaile honetan integratzeko.



KORTEZUBIKO

UDALA

HARANETIK PADURARA, ARKEOLOGIA, ARTEA ETA NATURA

Kortezubiko Udalak bere baliabide naturalak eta kulturalak balioesten dauz www.turismokortezubi.eus web orria argitaratuz, turismo arduratsu, jasangarri eta kulturala sustatzearen alde. Web orriak egitura xumea dauko, diseinu erakargarriagaz eta informazio garrantzitsu eta argiagaz batera. Honi esker, leihotzat zabalitzen dau herriko kultura-, natura- eta historia-ondare garrantzitsua ezagutzeko eta bere auzoak esploratzeko, askotarikoak eta, aldi berean, turismo-rako erakargarri diranak. Udalerriak eskaintzen dabezen ibilpideek eta mendi-ibilbideek be arreta berezia merezi dabe webgune barri honetan. Bertako Kmoko ostalaritza-establezimenduek eta herriko ekoizleek eskaintzen daberen produktuen eskaintza gastronomiko garrantzitsuak lurraren eta mahaiaren arteko lotura indartzen dau. Azken batean, webgune barria landa-ingurune idiliko eta askotarikoak eskaintzen dauen lasaitasunaz gozatzeko gonbidapena da, padura eta barruko haranen artean.



MENDATAKO

UDALA

UDAL ETXEBIZITZETARAKO EPEA ZABALIK

Mendatak lasaitasuna, bizitza soziokulturala, natura pribilegiatua eta kalidadezko zerbitzuak eskaintzen dauz, eta orain udalerrian bizitza barri bat hasteko aukera eskaintzen dau, prezio tasatuko eta kooperatiba-erregimeneko udal-etxebizitzak eraikiz. Hiru eraikin kolektibo eraikitzea aurreikusita dago Elexalde auzoan, herriko erdigunean. Bertan udalerriko bizitza sozial eta kulturala batzen da, udaletxetik, frontoitik, probalekutik, elizatik, udal taberna-jatetxetik eta Idatze Etxea kulturgunetik gertu. Eraikin bakoitzak 3 logelako 5 etxebizitza izango dauz, erabilera eskusiboko kanpoko lorategi eta terraza gune zabalekaz, kanpoko garaje-partzela estaliagaz eta trastelekuagaz. Etxebizitza guztiek sarrera independentea izango dabe. Eraikuntzaren kalidadea zainduko da, lehen mailako materialak erabiliko dira, ahalik eta erosotasun eta aurrezpen energetiko handiena lortzeko. Etxebizitza horretan interesa daukatenek informazio gehiago eskatu eta izena emon daiken Hiruluger etxe-agentzian.



MURUETAKO

UDALA

JAIK ANTOLATZEKO BATZAR EDEGIK ETA PARTE-HARTZAILEAK

Jaiak aukera apartekoak dira herriko nortasuna ospatzeko eta indartzeko eta komunitatearen loturak sendotzeko. Muruetako Udalak jaien potentzial hau indartu gura dau, eta horretarako batzar edegiak antolatzen dauz. Batzar horreetara herritar guztiak gonbidatzen dauz euren ideiak proposatzeko herriko jai-ekitaldiak herrikoia goaz, askotarikoagoak eta parte-hartzaileagoak izan daitezkan. 2024an Errege Eguna, Txixiburduntzi eguna, San Isidro jaiak eta San Joan sua ospatu dira. Eta oraindik gozatzeko dagoz Andra Mari jaiak (iraila), Txarriki Eguna (abenduko lehen domeka) eta Gabonak, Olentzero eta Mari Domingi barne. Batzar edegi horreetan, jaien antolaketan aktiboki parte hartzeko "AUZOLAN" herritarren lankidetzarako foroa izateaz gain, dagoeneko egin diran jai-ekitaldi guztien kontu xehatuak emoten dira, kudeaketa garden baten esparruan.


*Axola zaiguna
zaintzea,
zure esku,
gure esku.*



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeauas.eus

kulturklik

**ANTEKRIA, MUSEOAK, LIBURUAK, JAIALDIAK, KONZERTUAK, BERTSOLARITZA...
TEATRO, MUSEOS, LIBROS, FESTIVALES, CONCIERTOS, BERTSOLARISMO...**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



www.kulturklik.euskadi.eus

Elantxobe

itsaso jagofea



Elantxobe itsasotik.

Itsasotik eta itsasorako jaioa, Elantxobe udalerrri gisa agertzen da arrada txiki honetako biztanleek itsasoagaz dauken bizi-harreman estutik abiatuta, Ogoñoiko itsaslabarren oinetan.

Etxebizitza, instalazio eta itsasontziak Kantauri itsasoko erasoaldietatik babesteko eta hauek hobetzeko bertakoek auren irabazien inbersinoa bideratzeko erabagitasunak, bere udalerrria sortzeko mobimentu luze eta temati bat eragin eban, XIX. mendera arte saririk jaso ez ebana.

Badira itsasoari begira dagozen lekuak, itsasoaren ondoan dagozenak edo itsasotik bizi diranak, baina Elantxoben itsasoak bere esanahia biderkatzen dau. Elantxobe itsasoari begiratzen deutso eta bere kale, talaia eta moiletatik, lehen planoan itsaso nonahikoa ikusten da, lurra beti da kostaldea. Bere perspektibaren mugak,

itsaslabarrak, eta herriko etxeak egokitzen diran malda zorabigarriak, anfiteatro sorgindua sortzen dabe. Antzezleku honen oinetan Bizkaiko golkoaren sinfonia ederra entzuten da, interpretatzailerak olatuak, itsas haizea eta zeruertz handiak dira.

Elantxobe goitik behera eta behetik gora deskubridu beharreko herria da. Bere kale sigi-sagatsuek eskaintzen daben perspektiba desbardinak amaibakoak dira, begirada bakoitza aldakorra. Talaia-tik porturaino, herriak itsasoa enkoardrau egiten dau eta itsasoak apaintzen dau herria, estampa iradokitzaileen segida eder batean.



Elantxobeko plataforma birakorra, autobus geltokian.

Portua, Elantxobeko *"alma materra"*, hazten joan zan herriko arrainontziteri emonkorren beharizanen arabera. Bere egiturak, XVI. eta XVII. mendeetan, erriberako moila xume bat zana, bere erabiltzaile nekazinek administrazioetan egiten eben presino etenbakoaren bultzadaz garatu ziran. XVIII. mendearen erdialdean, moila barri bat egoan, eta 1783tik aurrera "portu zarratu" baten bilakatzen da. 1810eko obrek (hegoaldeko dikea edo ontziolakoa) eta 1831koek (antzinako iparraldeko dikea) espazio zabalagoa eta seguruagoa sortu eben. 1911 eta 1916 bitartean egindakoek gaur egungo portuaren funtsezko fisonomia osatzen dabe. Egitura monumental handi horrek sendotasuna eta segurtasuna transmititzen dauz, eta, emoten dauzen zerbitzuak kontutan hartuta, euskal kostaldeko onenetako bat da.

Elantxobe inguruko gainaldean, landare-mantu trinko batek berdez margotzen dau Ogoñoiko mendi eta lurmuturraren kareharrizko gailurra, eta artadi kantauriar bikain eta koropilatsua zabaltzen da bertan. Lurmuturra inguratzen dauen bidezidorrak esperientzia parebakoa emoten deutso ibiltariari, itsaslabarren gaineko perspektiba zorabigarriekaz. Hemen txoko irrealak sortzen dira, goroldioz es-talitako arrokak arteen artean agertuz.

Ibilbidearen goiko aldean, itsaso zabaleko panoramika handia agertzen zaigu. Plata-forma natural horreetatik, talaiariak itsasoa zaintzen ari ziran, kostaldera hurbiltzen ziran baleak begizatzen lehenak izateko asmoagaz, horrela herritarrei abisau eta zetazeo gutziziatu hauen bila irteko.

Elantxobe plan ona da beti, lehorretik edo itsasotik txoko eder honetara iristea da egun oso berezi baterako bermerik onena. Bere berezko xarmei jatetxe eta tabernen birtute gastronomikoak gehitzen jakez, ongi kokatuak bezain atseginak eta itsasoko zein ortuetako produkturik onenak eskaintzen dabezenak.

Urteko edozein urtaro ezin hobea da Elantxobera joateko. Udan giroak eta eguraldi onak inguruko koloreak areagotzen dabez. Udaberrian eta udazkenean, giro lasaiak inguratzen gaitu eta neguan, talaiatik e-ikatz bat ikustea apartekoa da. Beti da ideia ona itsasoko zelatari honen eremutara hurbiltzea.

Zure bisitan garraio publikoa erabil daizun gomendatzen deutsugu eta animatzen zaitugu. Gainera, herriko erdigunera iristean autobusen noranzkoa aldatzen dauen biraketa-plataforma bitxia esperim-entau ahal izango dozu. **UM**



Elantxobeko portua goitik ikusita.



Bilbon jaio arren kastako ibarrangelutarra da Olatz Saitua abeslari lirikoa, saiatua, ausarta eta aingeru-bozekoa, kontraste aberatsuko ibilpide baten protagonista. Bere jardunbide profesionaleko libretoan, musika etxean bizitzetik hasi, eta nazinoarteko izen handiko agertokietara igotera igaro da. *La Boheme-etik Mendi Mendiyan*-era, haren errepertorioa beraren esentziaren parte da.

Olatz Saitua

NEURRIZ, PAUSURIK PAUSU, AGERTOKI HANDIETARAINO

Deustuko Ikastolako umeen abesbatza hasi zan abesten, eta gitarra eta kantua ikasi ebazan ondoren, Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioan. Geroago, Bilboko Koral Elkarteko kide izan zan, eta, Enpresa Zientzietan lizentziau ostean, Carlo Bergonzi eta Wilma Lipp abeslari ospetsuakaz ikasi eban, Busetton, Sienan eta Salzburgon.

Abeslari lirikoa izan zan Salzburg Landestheaterren eta, geroago, Essengo Aalto Theaterren, 11 denboraldiz. Munduko hainbat hiritan abestu dau, Bartzelonako Teatre del Liceun kantatu dau, Madrilgo Teatro Realen, Bilboko OLBegaz. Gaur egun, kantuko irakaslea da Bilboko J.C. de Arriaga Kontserbatorioan, eta boz-teknikakoa Musikenen.

OLATZ SAITUA

Abeslari lirikoa

Bartzelonako Liceu Antzokitik Salzburgera eta Essenera, zelan egin zenduan maila lokaletik mundu-mailako gorenerako urratsa?

Pausurik pausu. Izaten dira ametsak, eta nik kantatzekoa neukan. Poztu egiten ninduan kanteteak, txikitatik. Etxean oso ageriko zerbait zan musika, *Euskal Kantak* batik bat. Kantatea gustetan jaken aitari eta amari, eta neba-arrebei be bai. Amak berehala bialdu gintuan kontserbatorio-ra, solfeoa ikasten. Ikastolan Aita Pascual Barturenek *Ikasume* abesbatza sortu eta bertan hasi ginan. Poz-pozik joaten ginan ikastolara, solfeora, abesbatzara, kontserbatorio-ra, guztietara. 15 urtegaz Bilboko Koral Elkartean sartu nintzan, astean hiru egunetan entsegua, 8etatik 10etara. Benetan gustura joaten nintzan.

Noiz pentsau zenduan kantetatik bizi ahalko zinala?

Enpresa-ikasketak egin nebazan, orduan kantua ametsa zan. *Amumak* esan eustan halako baten: *zu kantantie izan behar dozu, ala zer? Kantantie izan gura dozu?...* Eta nik erantzun neutson: *gura bai...* Berbaz esan neban lehenengo biderra izan zan. Benetan eskertzen deusot familiarri joaten itxi izana... Enpresa-ikasketak amaitu nebazanean, urtebetez Estatu Batuetako opera-antzoki baten kudeaketa-lanetan bekadun sartzeko suertea euki neban. Bueltatu nintzanean, kantu-ikasketei ekin neutsazan barriro, asko lagundu eustan Maria Asunción Inda irakasleagaz. Harek animau egiten ninduan beti.

Baina ez zinan Bilbon geratu...

Kantu-lehiaketa bat irabazi neban Bilbon, sari modura beka garrantzitsua eukana. Beka horri esker, Sienako udako ikastarorik luzeenean izena emon neban. Ikastaroa *Chigiana* Akademian izan zan, izen

Izaten dira ametsak, eta nik kantatzekoa neukan. Etxean oso ageriko zerbait zan musika, *Euskal Kantak* batik bat

handiko zentroan. Italiar tenore ospetsu bat zan ikastaroko irakaslea, Carlo Bergonzi, Maria Callasegaz eta izar guztiakaz abestutakoa. Nik boz ezbardina neukala pentsau neban lehenengo entzunaldian. Boz sendoagaz kantaten eben han, eta nik soil eta garbi kantetan neban. Baina Bergonzik lagundu egin eustan, lehenengo egunetik. Musika-prestakuntza eta segurtasuna neukazan nik. Hagaz urte batzuk emon ostean, konturatu nintzan Italian nire bozagaz bide gatxa eukiko nebala, eta Salzburgora joan nintzan, ikastera. Opera baterako proiektua sortu jatan Sienako Akademiaren bitartez, eta *La Boheme* abesten debutau neban.

Zelakoa izan zan nazinoarteko esperientzia ha?

Zorionez, Salzburgoko *Landestheater*-en gazte baten bila ebiltzan opera bitan rol txiker bana egiteko, *Figaroren ezteiak* eta *Carmen* lanetan. Entzunaldira aurkeztu nintzan, eta beharra emon eustien. Esperientzia hartu neban horregaz. Ganera, Aste Santuan Plácido Domingo zan etortekoa, *Otelo* kantetako, Salzburgoko jaialdietara, eta berba-emoile argentinar batek esan eustan entzunaldi bat egin behar nebala harentzat. Berak hartu eban bilatzeko ardura, eta, ikasle-etxean nengoela,

telefonoak jo eban, eta Plácido Domingo zan. *Otelo*-ren entsegu orokorrera joan nintzan, eta entzunaldia egin neban. Plácido Domingok antolatzen eban lehiaketan parte hartzera gonbidatu ninduan, baita urtarrilaren 5eko kontzertuan abestera be, urte hartan Donostiako Orfeoia men-deurrena zalako. Ikusgai jarri ninduan horrek.

Heldu zaran lekura helduko zinala imajinetan zenduan?

Ez. Ez neban pentsau antzoki supergarrantzitsu batera joango nintzanik; kantatea lanbide izatea gurako neukeala, ostera, bai. Ez dot egundoko ibilpiderik egin, beti jakin izan dot talentu apalekoa nazela, baina poz-pozik ibili naz. Ezkondu eta gero, Bilbon, Alemaniara kontratu finkoagaz joateko entzunaldi bat egoala jakin neban. Bezperan, hain zuzen, operan egon nintzan Bilbon, *Fidelio* ikusten, eta zuzendaria Alemanian entzunaldia egingo eban bera zan. Amaren esana baliau neban: *"Koldarre buruz ez da ezer eskribidu, ezezkua dagoaneko badaukazu, ahalegin-du"*, eta Bilboko hotel guztietara deitu neban. Topau neban, eta entzunaldia egitea lortu neban, Bilbon, Koral Elkartean,

>>>



Olatz Clorinda-ren paperean, *La Cenerentola* antzezlanean. ABAO Bilbao (ekoizpena: Giancarlo del Mónaco)
Argazkia: Olatz Saituaren artxiboa

eta nire bozaren profila interesau jakon. Zuzendari zoragarria zan, konpainia barria sortzen ebilen Essenen, Aalto Theaterren, akustika on-onagaz, 1.200 jesarlekuko aretoan, eta nik boz txikitxua daukat. Asmatu egin neban.

Plácido Domingorekin kontzertua egin nebanetik, Bartzelonan agentzia bat euki neban, eta 10 produkzinotan abestu neban Teatre Liceun

Freelance abeslaria be izan zinan, zer emon utsun horrek?

Essengo antzokia itxi nebanean, eszedentzian, interpretazionetarako deitzen eustien, eta, aldi batean, Plácido Domingorekin kontzertua egin nebanetik,

Bartzelonan agentzia bat euki neban, eta 10 produkzinotan abestu neban Teatre Liceun. Hemen, *freelance* sistema dago, obra baterako kontratuak egiten dira, ekoizpen zehatz baterako. Artista-beharra ezegonkorra da.

Zelan uztartzen da behar hori familiaz, seme-alabakaz?

Amari esan neutsonean Alemanian kontratu bat eskaini eustala, harek (oso modernoa dala iruditzen jat), holan esan eustan: *aita marinela neban, eta kanpainak egiten ebezen, urte bikoak, batzuetan. Joaten ziranak gizonak izaten ziren lehen, orain zuri egokitu jatzu.* Eta bai, pentsau neban, ezkondu eta urtebetera proba egiten joan nintzan, hilean behin etorten nintzan, senarra hara joaten zan... Alemanian hiru urte egin nebazan finko, baina Essengo Aalto Theaterren bederatz denboraldiz egin neban behar. Joan-etorrian ibili nintzan. Umedun geratu nintzanean, "orain, etxera bueltau behar dogu", pentsau neban. Eszedentzia neukan han, baina deitzen jarraitzen eustien. Musikenen hasi nintzan beharrean. Malgutasun handia eskaintzen eustien. Musikenek irakasleak aktibo egotea sustatzen dau. 2005. urtean, ordurako seme-alaba bi neukazala, kontserbatoriorako oposizioak atera ziran, eta lortu egin neban.

Irakasteak ase egiten zaitu?

2012. urtea ezkerotzik nabil irakasle. Sufridu egiten da, gauzak aurrera ez doazenean ez dakizulako zure erantzukizuna zenbatekoa dan eta ikaslearena zenbatekoa. Halan be, poz handia emoten dau irrika eragiteak. Musikenen ahots-teknikea irakasten dot, musika-irakasleentzako ahots-hezkuntza, ez abeslarietzakoa. Arnasketea lantzeko denporea behar da, ikasteko, sentiduteko, sentiduten ikasteko... 400 urtez garatutako

sistema da hori, mikrofonorik behar ez izateko.

Unean-unean gauzak egiten be jarraitu dot. Operan, orain dala hiru urte egin neban azkena, Bilboko Orkestragaz, Arriaga Antzokian, eta Kurzaalen Euskadiko Orkestragaz abestu neban igaz. Piano-jotzaileak kontzertuak be egin izan dodaz urte askoan. Igaz, Emakumeen Nazinoarteko Egunean, Gernikako Batzar Etxean, *Gernikako Arbola* abestu neban, nik neuk Iparragirrenen gitarra joz. Aurten, Gautegiz Arteagan, abuztuaren 10ean, "Urdaibaiko Organoak" ekimenean aberastuko dot.

Harrobia dago Euskadin?

Bai. Gustetan jakon jende asko dago, talentu gitxi-askogaz eta lanketa gitxi-askogaz. Behar honetan kontua ez da boza eukitea bakarrik, boza euki behar da, baina beste osagai asko dagoz. Esaterako, diziplina, beharra eta erantzukizuna. Ins-

trumentuagaz hasten diranek 8 urtegaz ekiten deutse, eta, normalean, 18 urtegaz kontserbatorioako amaitu eta unibersidadean hastekoak izan behar leukez. Hor hartzen dabe bide bat ala bestea. Musikako goi-mailako ikasketak eta unibersidadea guztiz buztartzea talentu eta gogo handiko jendeak soilik lortzen dau eta. Gainera, hemen, oraindik gauzatu bako aldarrikapen bat dago. Beharrean gabiltz musika-ikasketak be aitortu deiezan, eta erdi-mailako edo goi-mailako teknikariaren ziurtagiriak euki deiezan.

Euskal musika tradizionala maite dozula dinozu.

Salzburgon egin beharreko gradu amaierako lana euskalopereari buruz egin neban. Gernika-Lumoraetorriantzan Jose Antonio Arana Martija alkarrizketazera, eta Fran-

Folklore bizirik mantenduteko betebeharra dogula iruditzen jat, tradizioa gaur egungora ekarteko eginkizuna. XIX. mendearan

c i s c o
E s c u -
derogaz
be ber-
ba egin
neban.
M e n d i
M e n d i -
y a n - e k
eta ha-

lango abestiek dardarea eragiten deuste. Kontserbatorioan kantatu nebazan lehenengo abestiak kantu-ikasle guztiei ipintzen deutesdaz gaur egun. *Txalopin txalo*

>>>



Olatz Amor-en paperean, *Orfeo ed Euridice* antzezlanean. Lizeo Antzokia, Bartzelona (ekoizpena: Andreas Homoki)
Argazkia: Olatz Saituaren artxiboa



Orain, Benantzi Bilbaoren "Urdaibaiko Organoak" ekimena daukagu, zoragarria

da bata, eta *Nere Maitia* da bestea. Folklorea bizirik mantenduteko betebeharra dogula iruditzen jat, tradizioa gaur egungora ekarteko eginkizuna. Musika klasikoan XIX. mendearen erdialdetik egiten izan da hori.

Belaunaldien arteko erreleboa falta da

abesbatzetan?

Koru batean abestea zoragarria da. Jende asko ez da ausartzen ahots onik ez daukela uste dauelako, baina norberak soinu handia euki beharrik ez dago, koruan batu egiten dozu eta. Taldean dardara egitea da, jendarterako jarduera ona baino hobea da. *Mindfulness* da. Abesbatzetan igarten hasi dira gazteek ez dabela izenik emoten. Musika komertzialaz inguratuta bizi gara. Askoz genero gehiago dagoz orain, eta inoiz baino errazago eskuratu daikezu edozein generotako musikea. Irratirik ez egoanean, banda edo kontzertu bat behar izaten zan musikea entzuteko, edo domekan mezetara joan. Eleiza izan da jendea musikara erakarteko baliabide egokia.

Zelako loturea dozu Busturialdea-Urdaibaigaz?

Ama Ibarrangelukoa da, eta Deustun bizi ginan arren, udan etorten ginen. Gabonetan, asteburuetan...

Ibarrangelun bizitza musikala egoan. Domeketan, hamaiketako mezetara joaten ginan koadrila osoa, neskak korura. Ez da inoiz betebeharra izan. On Domingo geunkan, eta harek ahalegin handia egin eban Gabon kanten tradizioak bizibarritzeko. Organistea egoan, Jose Merikaetxebarria jauna. Ikastolako irakasle batek, gaur egun Ibarrangeluko koruan kantetan jarraitzen dauan M. Jose Montanerrek, liluratu egiten ninduan. Orain, Benantzi Bilbaoren "Urdaibaiko Organoak" ekimena daukagu, zoragarria. Musika klasikoan "intelektualtasun" handia badago be, erakarten jarraitzen dau. **UM**



Olatz *Damisella*-ren paperean, *Coronación de Popea* antzezlanean. A Coruña (ekoizpena: Emilio Sagi) **Argazkia:** Olatz Saituaren artxiboa



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

Animalien ongizatea sustatzen dugu Promovemos el bienestar animal

Eusko Labelen **ANIMALIEN ONGIZATEA sustatzen dugu**, bizi-baldintzak hobetuz eta gure produktuen kalitatea bermatuz.

En Eusko Label **promovemos el BIENESTAR ANIMAL**, mejorando sus condiciones de vida y garantizando la calidad de nuestros productos.

hazi

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



Foruko frantziskotarren fraile-etxea, 1719-2024

Aita Frantziskotarren Fraile Etxeak leku nabarmena euki dau Forun 1719. urtea ezkerroztik, baina fraile horreek 1422. urterako baegozan Busturialdean, beste kokaleku berezi batean, Bermeoko Izaro ugartean, hain zuzen. 300 urte baino gehiago igaro ostean, Foruko Frantziskotarren fraile-etxearen historia amaitzear dago, aurten behin betiko zarratuko dauz-ta ateak. Ordenak komentua saldu dau, eta hemen bizi diran azken hiru fraileak lekuz aldatuko dabez.



Jesús Mari Madariaga, fraile frantziskotarra, Foruko fraile-etxean.

Niri neuri eta frantziskotarren komunitate osoari samin handia eragin deusku Forutik alde egin beharrik. Leku enblematikoa izan da, historia handikoa. Hemen bizi izandako 305 urteetan ospe handiko fraile ugari izan doguz, frantziskotar askoren topaleku izan da hau, eta hartu-emon handia euki dogu herriagaz, jendeagaz, kontu guztietan parte hartzen ahalegindu gara. Garai batean, Foru oso garrantzitsua izan zan, Arantzazuko Santutegiagaz batera, seminario txiki moduan, gogoetea egin dau Foruko erretore Jesus Mari Madariaga fraile frantziskotarrak; beste fraile bigaz bizi da komentuan, eta, aurreikuspenen arabera, irailean itxiko dabe orain arteko haren etxea izandakoa.

IZARO, HISTORIAREN HASIEREA

Foruko eta Bermeoko frantziskotarren fraile-etxeek ordena bereko adar ezberdinetan daukie jatorria. Anaia Txikien Ordenan, hain zuzen, Frantziskotarren Ordena izenagaz ezagutzen danean. Jatorriz, Bermeokoak 1357an finkatutako klostro-fraileak ziran, uribildutik kanpokoak. Eta Forukoak, ostera, fraile betetzailak ziran, lurreko ondasunetatik bereizitako erlijino-bizimodua gura ebenak; Izaro ugartean kokatu ziran 1422an, Bermeok ugartea Frai Martin de Arteagari laga ostean. Izan be, Frai Martin de Arteaga frantziskotarrak Izaro hartu eban bizilekutzat, beste hiru erlijiosogaz batera.

Ugartea eguneroko bizitzarako leku trakets eta deserosoa zanez, fraile betetzailak santutasun-ospea hartu eben. Lortu eben famea hain zan handia, erre-

geak be joan jakezan bisitan. Esaterako, Henrike IV.a (1457), Fernando Katolikoa (1476) eta Isabel Katolikoa (1483). Kontuak kontu, kortsarioen interes be biztu eben, eta 1596ko irailaren 1ean ugarteari eraso eutsien kortsario frantziar eta ingelesen flotilla batek. Erasoan, fraile-etxea hondatu, instalazioak suntsitu eta berreregiteko beharrean itxi ebezen. Fraile-etxea ez zan inoiz bere onera bueltau, eta aurreko mendeetan lortutako oparotasuna eta ospea galdu ebazan. Fraileak pobrezian bizi izan ziran, eguraldi txarraren eta itsasoaren menpe, harik eta ugartetik alde egitea erabagi eben arte. Bermeoko klostro-frantziskotarren komunitatean integretako ahalegina egin eben arren, ez ziran han ondo egokitu, eta, azkenean, Foruan kokatu ziran, dohaintza bati esker.

FORUKO ETAPEAREN HASIEREA

Francisca González Palacioren eta haren alaba Ángela de Estalaioren eskuzabaltasunari esker heldu ziran Forura, 1714an hareek emon eutsiezan-eta, dohaintzan, fraide frantziskotarrei Goiko *Bolialdeko Etxea* eta lursail bi, gaur egungo fraile-etxetik hurre. Etxe-aldaketea 1719an gauzatu zan, baina XIX. mendea korapilatsua izan zan politikoki, iraultzak eta desamortizazioak egon ziran, eta fraileek,

beste behin, etxea itxi eta beste bat bilatu beharra euki eben; beste dohaintza batek, zelangura, Foruan jarraitu eien bideratu eban. Dolores de Calabria Galiciak etxe bat laga eutsen, beraren lursail eta guzti, Elexalde auzoan, eta hantxe bizi izan dira frantziskotarrak 1889a ezkerroztik. Eleiztar eskuzabal haren argazkia fraile-etxeko sarreran ageri da oraindino be. Nahiz eta dohaintza jaso ebenean etxea soilik egoan, apurka-apurka zabaltzeko hainbat behar egin ebezan; fraile-etxea, eleiza, ikastetxea eta frontoi estaldua.

19 fraile be bizi izan dira Forun, 1930. urtetik 1994. urtera bitartean ikastetxe serafiko edo mintegi txiki funtzioa eukanean. Frailegaiek Arantzazuko Seminarioan ikasten eben Lehen Hezkuntza, eta Bigarren Hezkuntza, barruko ikasle moduan, Forun. Prestakuntza akademikoa, barriz, Gernika-Lumon jasoten eben, ikastetxe serafikoko lehenengo urteetan izan ezik; horreetan, heziketa osoa fraile-etxean bertan izaten zan.

Aurreikusita dagoanaren arabera, Jesus Mari, Felix eta Pedro, Foruko azken hiru frantziskotarrek, 2024ko irailean itxiko dabe fraide-etxea. Jesus Mari erretore beharretara joango da Bilboko Iralara, eta

Pedro eta Felix, komunitateko lehen erretorea izan zana (Gernika-Lumoko Santa Luzia ermitea zuzentzen eban), Bermeoko fraile-etxean biziko dira. *Orain, eleiz-*

Aurreikusita dagoanaren arabera Foruko azken hiru frantziskotarrek, 2024ko irailean itxiko dabe fraide-etxea.

barrutiko abadeen taldeak erabagi behar-ko dau zelan emon orain arte frantziskotarrok emoten izan dogun zerbitzua, Foru, Murueta, Morga, Muxikako Ugarte eta Ariatza parrokietan, Mendatako Albizen, Busturian eta Sukarrietan, baita Gernika-Lumoko Calzada egoitzako eta Josefinetako kapilautzetan be; adierazo dau Jesus Mari Madariagak.

Frantziskotarrek 300 urte baino gehiagoko etapea zarratu ostean, historia barrua hasiko da Forun. **UM**



Frantziskotarren fraile-etxea, Foru.

Alkate Mallona,

KONPROMISOA
ETA SAKRIFIZIOA
IDEALENGAITIK



Alejandro Mallona Iza Mundakako alkate izan zan 30eko hamarkadako une desbardinetan, gerra zibilaren garaia barne. Bere biografian honakoak nabarmentzen dira: Euskal Errepublika aldarrikatzeko saiakera, Agirre Lehendakariaren hautaketan mahai presidentzialeko kideetako bat izatea eta 1937an bere ideia nazionalistengaitik atxilotu eta fusilatzea. Mundakan, bere herrian, parke batek bere izena darama, *Alkate Mallona*.

Alejandro Mallona Iza Mundakan jaio zan 1878ko otsailaren 2an. Lanbidez merkataritza-marinela izan zan eta Mundakako alkatea zan. Heriotza-zigorra ezarri eutsoen ideia nazionalistak defendatzeagaitik. Monolito batek bere oroimena omentzen dau Alkate Mallona parkean. *"Berez ona eta osoa izan zan; fededun sakona eta humanista"* izan ziran monolitoaren inaugurazio egunean jaso ebezan goraiipamenetako batzuk.

Bere ibilbide politikoa 1931n hasi zan Mundakako Udaleko zinegotzi lez, EAJk osorik osatutako korporazioan, Jose Arroategi buru ebala. Honegaz batera eta Getxoko alkateagaz (Jose Antonio Agirre, gero "Euzkadiko" lehen Lehendakaria izango zana) eta Bermeo eta Elorrioko alkateekaz batera, Euskal Errepublika aldarrikatzeko deia egin eben. 1931ko apirilaren 17an, Lurralde Historikoko udal ordezkariak eta herritarrak osatutako auto eta autobus karabana bat Gernika-Lumora joan zan Bizkaiko Batzar Nagusiak batzeko, Euskal Errepublika aldarrikatzeko manifestu bat babesteko asmoz. Baina ezin izan eben herrira sartu, Espainiako armadako tropek militarri okupatu ebeelako.

Urtebete geroago, 1932an, Mundakako korporazioa kargutik kendu eben gobernuaren aginduz, eta batzorde-kudeatzaile batek ordezkatu eban. Hurrengo urtean, ordea, 1933ko udal hauteskundeetan, Alejandro Mallona hautatu eben alkate. Bere lehen udal bilkuran, Espainiako gobernuak ezarritako 1839ko urriaren 25eko legearen aurkako akta bat sinatu eban. Legeak, "Euskal Probintzietako" eta Nafarroako Foruak berresten ebazan, baina *"Monarkiaren batasun konstituzionalari kalte egin barik"*. Legearen azalpen horrek "Euskal Probintziak" delakoek benetan Foruak indarbakotzea zala uste eben. Hau dala eta, Mallonak akta hau sinatu eban, *"Errepublikako botereei Bizkaian zilegatasun bakoa eta aplikau bakoa deklaratu*



Alkate Mallona parkeko monolitoa.

tzeko eskatuz, deklarazio horren ondorio juridiko guztiakaz".

TIROKATUA, ATXILOKATUA ETA FUSILATUA

1933ko irailaren 24an, Mallona alkate atentatu batetik bizirik atera zan. Bertan, begi bat galdu eban autobus bateko bidaiariak tirokatu ondoren. Autobus hori Bilbora zihoan, Bermeon Acción Republicana-ren mitin batera joan ondoren. José Antonio Aguirre izan zan bere abokatu defendatzaile horren gaineko auzian. Bere lanean nekaezina, Mallona, begia galdu ondoren, alkate lanera itzuli zan eta, besteak beste, Euskal Udalen Batzordean Bizkaiko lau ordezkarietako bat izan zan Euskal Estatutua aurrera ateratzeko. Euzkadiko oinarritzko eskubideen defendatzaile sutua izan zan. Euskal Unibersidadea ezartzearen alde egin eban eta Kontzertu Ekonomikoa eta Euskadiren eskubideak defendatu ebezan. Hori dala eta, osoko bilkura batean atxilotu eta Gernika-Lumora

eraman eben, eta "desobedientziagaitik" auzipetu eta bere eginkizunak bertan behera utzi ebezan. Alkartasuna adierazteko udalbatza osoak bere karguei uko egin eutsen. 1936ko hauteskundeetan eskuindarrek porrot egin ondoren, 1936ko urriaren 7an, "Euzkadi" ko lehen gobernu hauta-

Gernika bonbardeau eta egun batzuetara (1937ko apirilaren 27an), Errepublikaren aurkako matxinatuak Mundakan sartu ziran. Mallona alkate lez udaletxean aurkeztu zan, eta hori, bat-

zuentzat, *"noblezia eta, aldi berean, errubakotasun ekintza"* bat izan zan. Berehala atxilotu eta Larrinagako espetxera bidali eben, Bilbora. Herritar askok sinadurak batu ebezen indultua eskatzeko, baina ez eban emaitzarik emon. Gerra Kontseilu Iraunkorrek heriotza-zigorra ezarri eutsen Mallonari. Zigorra 1937ko irailaren 4an bete zan Derioko hilerriko paredoietan, eta bertan lurperatu eben. 1987an, haren gorpuzkiak Mundakako hilerria eraman ebezen.

Matxinatuak Mundakan sartu ziran. Mallona, udaletxean aurkeztu zan, eta hori, batzuentzat, "noblezia eta, aldi berean, errubakotasun ekintza" izan zan.

UM



JASANGARRITASUNAGAZ
BATI!



busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org | 94 625 68 84 / 94 625 47 22

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

Erakusketaren egilea Autora de la exposición:
Lucie Hašková

HRADIŠTKO

Txikoria belarrak loratzen ez zirenean
Cuando los dientes de león no florecían



ABUZTUAK 4tik
IRAILAK 30era

Del 4 de AGOSTO
al 30 de SEPTIEMBRE

BUSTURIKO
KULTURETXEA
(Altamira auzoa)

CASA DE CULTURA
DE BUSTURIA
(barrio Altamira)

Ordutegia
Astelehenetik barikura
Abuztua
9:00-14:00
Iraila
9:00-11:30
16:00-20:30

Horario
De lunes a viernes
Agosto
9:00-14:00
Septiembre
9:00-11:30
16:00-20:30



herriko taberna arratzu

Loiola auzoa, Arratzu

94 625 36 86
649 559 516

1000 kolourau
Taberna + Jatetxe

Plaza San Juan Ibarra, 11 - 1º
48300 Gernika-Lumo
Tel. 94 625 76 19 / 628 548 572

1994-2024
30 años JUNTOS

CHARCUTERIA - URRATEGIA
PEPI
"CHARCUTERIA SELECTA"
ESPECIALIDAD EN PRODUCTOS IBÉRICOS

Plaza del Mercado, P-7
Tel. 608 001 428
charcuteriapepi@gmail.com
GERNIKA

SAN ISIDRO

Sociedad Coop. Agrícola Ganadera
Abeltzain eta Nekazari Kooperatzaile Elkarte

Dekobarna, 25pab. 8-14 Edificio Solube
48300 Gernika-Lumo
Tel. 94 625 03 20 / Fax 94 625 68 71
kooperatibasanisidrogernika@gmail.com
www.kooperatibasanisidrogernika.com

EUSKAL SOUVENIRS
GERNIKA

Andra Mari kalea, z/g
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com

@euskalsouvenirs

L&L TRANSPORTE, ALMACENAJE, DISTRIBUCIÓN...
LOGÍSTICA

Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
Tel. 94 625 60 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es

AUZOKOA TABERNA
Arcoiris de sabores

Pablo Picasso Kalea, 9
Gernika-Lumo
Tel. 94 625 16 66

Arrien Optika

Urkieta k. 10
Tel./Fax: 946 25 63 63
Email: arrienoptika@yahoo.es

Euskal kostaldean MARRAZOAK ezagutuz



MAITE ERAUSKIN-EXTRAMIANA

AZTI-ko ikertzailea.
Itsas ekologoa.

Egun eguzkitsua da, eta plisti-plasta zabilta herriko hondartzako ur freskagarrietan. Jakin-minez, beti eramaten dozu urpekaritzako betaurrekoak, izugarri gustatzen jatzu etxetik hain gertu dozun itsaspeko mundua, arrain, olagarro eta krustazeo txiki guztiekaz. Inguru honetan murgilduta zagoz, pertsona gehienen ikusmenetik urrun, bat-batean begi-bazterretik itzal bat ikusten dozunean. Tensinoan jartzen zara, ez dakizu zergaitik, berezkoa da, eta zeure buruan abestia entzuten hasten zara, "txan, txantxan, txantxantxan". Konturatu barik gertatzen dan zerbait da, pultsua bizkortzen jatzu eta paralizau egiten zara silueta gero eta handiago bat astiro baina handikiro hurbiltzen jatzunean. Marrazoa da, marrazoa da! Marrazoa da!!!-hasten da ahots bat oihuka zure buruan. Zer egingo dot? Mesedez, zer egingo dot?? Gogoratzen dozu prentsan irakurri zenuana eta arnasa sakon hartzen dozu. Erlaxatzen saiatzen zara, ez dozu mobimentu frenetikorik egiten, horrek harrapakin zaurituaren itsura emongo eutsulako, eta zuzenean begiratzen deusazu bizkar urdineko eta zilar-koloreko sabela duen marrazoari. Hurbiltzen jarraitzen dau. Ez da gelditzen, baina une batez, beti ikaratu zaituen "Tiburón" filmaren soinu-banda amatau egiten da zure gogoan, arnasa eta taupadak moteldu egiten dira eta animalien uhin-mobimentuek liluratu egiten zaitue. Hipnotikoa da, ezin deusazu bere mobimentuen perfekzinoari begiratzea-

ri utzi, zuri arrotza jatzun ingurune batean aurrera egiteko erakusten dauen erraztasunari, transmititzen dauen lasaitasunari. Marrazoa zugandik bi metro eskasera dago, baina zure gogamenean entzuten zan argi gorriko alarma zaratatsua isildu egin da eta baretasun sentsazio bati bide emon deutso, azken unean alde egiteko eta zu saihesteko emaro birau dan animaliarekiko ia konexino sentsazioa. Animaliak orain adi-adi begiratzen deutsu, adiskidetsu, agurtuz. Heldu dan bezala, presa barik, apurka-apurka urruntzen da ozeanoaren mugabakotasunean galtzeraino. Zer gertatu da? Oraindik apur bat nahasita zagoz, baina gauza bat argi dozu, ur hauetan bizi diran marrazoei buruz gehiago jakin gura dozu: non dagoz eta noiz topa daitezke?, zertaz elikatzen dira?, zenbat denbora bizi dira?, jateko arrantzatzen dira?, asko dagoz ala arrantza dala eta gutxitu egin dira?, klima-aldaketak eta itsasoko baldintzen aldaketa guztiek eragiten deutse?

Etzera bueltatzean, ikertzen hasten zara, eta ohartzen zara AZTIk, Euskal Herriko itsas ikerketarako zentroak, proiektu bat jarri dauela martxan, gaur goizeko topaketa bereziaren ondoren buruan izan dozuen galdera guztiei erantzuten saiatzeko. Orain, ezin deusazu gaiari buruz irakurtzeari utzi, eta zure esperientzia kontatzea eta gizar-teak marrazoei buruz daukon ikuspegi negatiboa aldatzen saiatzea gura dozu. Ikusi besterik ez dago marrazoei kostaldean ikusteak eragiten dauen alarma. Konzentrau eta AZTI espezieen hauen inguruan egiten ari dan azterketari buruz irakurtzen jarraitzen dozu:

"Kantauriko eta Bizkaiko golko osoko uretan hainbat marrazo pelagiko espezie dagoz, horreen artean marrazo urdina (*Prionace glauca*), mako marrazoak (*Isurus oxyrinchus*), marrazo muturmotza (*Lamna nasus*), itsas azeria (*Alopias vulpinus*) eta marrazo erraldoia (*Cethorhinus maximus*). Halanda be, beste espezie batzuk be ikusi izan dira, esaterako mailu-arrain (*Sphyrna spp.*) edo marrazo zuri handia (*Carcharodon carcharias*).

Guztiak marrazo pelagikoak dira, ur-zutabeen bizi dira eta ez dagozela itsas hondoari lotuta, hain zuzen. Ozeanikoak badira be, batzuetan kostaldera hurbil-

tzen dira, eta zalaparta handia sortzen dabe komunikabideetan. Espezie hauek inguruan egotea ez da kezagarria, seinale ona baino. Goi-mailako espezie harrapartizat hartzen dira, kate trofikoaren goiko aldean dago eta ekosistemen erregulazioan oso rol garrantzitsua betetzen dabe. Animalia gaixo edo zaurituak hiltzen dabez populazioak osasuntsu mantenduz, eta hauen ugaritasuna erregulatzen dabe, itsas ingurunean oso beharrezkoa dan oreka sortuz. Espeziearen arabera, beste arrain batzuk, moluskuak edo krustazeo txikiak jaten dabez, edo marrazo erraldoiaren kasuan, planktona. Filmek erakusten dabarenen kontra, gizakia ez dago inolako marrazoren dietan, eta espezie hauek gizakiei urtero egiten deutsezen erasoak hamar baino gutxiago dira mundu osoan. Behiek urtero egiten dabezen erasoan azpitik dago zenbaki hau.

Gero eta kezka handiagoa dago marrazoen populazioen egoerari buruz; izan be, azken hamarkadetan, populazioak

oso azkar murriztu dira marrazoen kalteberatasunagatik eta jasan behar izan daben ustiapen handiagaitik, neurri handi batean. Arrantza intzidentala (arrantzaren helburua beste espezie batzuk diranean gertatzen dana) arazo larria da, eta populazio askotan murrizketa nabarmena eragin dau, bereziki, ugalketa-tasa txikia daukeelako (ziklo bakoitzeko kume gutxi, batzuetan hainbat urtez behin izan daitezkeena) eta heltze-adin berantiarra daukeelako. Baldintza hauek ikusita marrazo espezieak oso sentikorak dira itsas ingurunean gertatzen ari diren aldaketekiko.

Askotan aldaketa hauen inpaktua lehenertzeko urteak edo hamarkadak behar dira. Espezie horreen populazioak murrizteak ondorio ekologiko larriak daukoz, eta zientzilariek ikusten ari dira klima-aldaketaren ondoriozko berotzeak eta desoxigenazioak eragina izan daikeezala marrazoei itsas komunitateen egiturari eusteko dauken moduan.

Marrazo urdina (*Prionace glauca*) marrazo pelagikoen espezie ugarienetakotzat

>>>



AZTIko markatze-taldea OWP-ko Lukas Müller-egaz batera, proiektuaren laguntzailea.
Argazkia: OWP



Marrazo urdina, bizkar urdinxkaduna, hortik datorkio bere izaera. Sabel zurixka dauko, bere kamuflajea hobetuz. Argazkia: Isaias Cruz (Mako Pako)



AZTIko markatze-taldea marrazoak erakartzen. **Argazkia:** OWP

jotzen da, eta arrantza profesionalean zein kirol arrantzan harrapatuak izateaz gain, tunidoen eta ezpata-arrainei zuzendutako arrantzanmodu intzidentalaren harrapatuak izaten dira. IUCN Red List erakundeak "ia mehatxatutako" espezieetat jotzen dau, eta orain dala gitxi Basa Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Nazioarteko Merkataritzari buruzko Konbentzinoaren (CITES ingelesezko sigletan) II. eranskinean sartu da 2023an (CoP19 Prop. 37). ICCAT (Atlantiko Atuna Kontserbatzeko Nazioarteko Batzordea, ingelesezko sigletan) arrantza-erakundeak populazioen egoerari buruz egindako ebaluazioen ondorioz, lehen aldiz, 2019an 30M tonako gehieneko kuota zehaztu eban Ipar Atlantiko osoan harrapatzeko, eta 2023an 27M tonakoa Hego Atlantikoan harrapatzeko. Espezie honek gehienez 4 metroko luzeera har daike, baina normalean 2-3 metrokoak izaten dira heldutasunean. Espezie hau 20 urte baino zertxobait gitiago bizi daiteke, eta 4-5 urtegar heldutasun sexuala lortzen dabe. 9 eta 12 hilabete bitarteko ernaldiaren ondoren, elikatzeko erabiltzen daben

bitelo-boltsan garatuak izan diren 35 cm inguruko 80 kume erditzen dabez, ozeano zabalean bizitzen hastezko prest dagozenez.

Bizkaiko Golkoa elikadura-eta hazkuntza-eremu bat izan daitekeen arren (urtero ikusten dira eta marrazo gazteak), eta, beraz, garrantzi handikoa hainbat marrazo-espezie pelagikorentzat, bereziki, marrazo urdinarentzat, ezjakintasun handia dago haren dinamikari, migrazioei, urtarokotasunari eta habitataren erabilerari buruz. AZTIk gidatutako azterlanaren helburua espezie karismatiko hauek gehiago ezagutzeko, ulertzeko, eta baliabide horreek eta itsas beste jardura batzuek, esaterako arrantza intzidentalagaz, gura ez diran interakzioak modu eraginkoragoan kudeatu ahal izatea da. Diziplina askoko ikerketa da, eta hainbat ikuspegitatik jorratu da, teknologikoki aurreratuenetik, esaterako markaketa satelitaletan konbentzionala, datuen azterketa, habitataren modeloen garatzea, ingurumen DNaren

Espezie hauek inguruan egotea ez da kezagarria, seinale ona baino

analisi, baita gitxien ezagutzen diranetatik be, esaterako herritarren zientzia. Helburua nagusia ezagutzeko handitzea dan arren, espezie hauek zuzenean edo zeharka lotutako persona guztiak inplikatzeko be garrantzi handikoa da (kirol-arrantza-leak eta profesionalak, turismo-operadoreak, zientzialariak eta herritarrak).

Proiektua 2023an hasi zan, marrazo urdinen eremuak identifikatzeko asmoz markaketa jorrotuz. 14 banako (7 ar eta 7 eme, 150 eta 270 cm bitartekoak) marka konbentzionalek markatu ziran (plastikozko marka batzuk, identifikazio-zenbakiagaz), eta horreetako 5 sateliteko markakaz be markatu ziran. Marka hauek askoz aurreratuagoak dira, eta uraren tenperaturari,

presinoari eta argiari buruzko informazioa batzen dabe, animaliari helduta jarraitzen daben bitartean. Gero, marrazoak egindako mobimentu bertikalak eta horizontalak geolokalizatzeko eta balioesteko balio dau. Markak gehienez urtebeteko iraupenerako programatu daitezke, eta une horretan marrazotik askatzen dira eta itsasoaren gainazalean flotatzen geratzen dira batutako informazio guztia lurraren inguruan biraka dabilzan satelite espezializatu batzuetara bialtzen daben bitartean. Horrela, ikerketa-taldea informazioa lortzeko gai da, edozein ozeanotako edozein tokitan askatu ahal izan dan marka fisikoki berreskuratu behar izan barik.

Lehen aipatutako sateliteko bost marketatik, lauk informazioa emon dabe eta oso patroi desbardinak erakutsi dabez. Horreetako bi markatutako eremuan geratu ziran (ziur aski markek hilabete bat eta bi hilabete artean iraun ebeelako), eta beste biek, barriz, Frantziako iparralderantz eta Ipar Atlantikorantz migratu ebeen, eta gero Galiziarra bueltau ziran. Aurreikuspenen arabera, azken markak aurtongo abuztuan bidaliko dau informazioa. Denboraldi honetan, taldeak beste 16 banako markau dauz, bi satelite-markakaz, eta markatutako jardunaldi gehiago aurreikusen dira (aisialdikoak eta profesionalak) lanean ari da ikerlari taldea markatutako banakoen begiztazeari edo harrapatzeari buruzko informazioa lortzeko, bai eta begiztazteen eremu edo garai ohikoenei buruzko informazio garrantzitsua lortzeko be.

Igaz egindako aurkikuntza bat izan zan behatutako banakorik txikiena (80cm-tik beherakoa) azaroan ikusi ebeela, espezie horren begiztazteen barri oso gitxitan emoten danean. Hain banako txikia izateak orain dala gitxi jaiokoa zala esan gura dau, eta ez oso urruti, ez daukeelako mugitzeko gaitasun handirik, harik eta handiagoa izatera iritsi arte.

Informazio hau oso garrantzitsua izan zan markatze-garaia udako hilabeteetatik kanpo zabaldu ahal izateko, hasieran aurreikusitako bezala, eta espero da markatzeak emaitzak zabaltzea marrazo urdinaren mobimentuen, gustuko-eremuen eta urtarokotasunaren barri emonez.

Halanda be, markaketa ez da ikerketarako erabiltzen dan bide bakarra. Aldi berean, marrazo urdinaren harrapaketei, behaketei eta informazio biologikoari buruzko informazio guztia batzen hasi zan ikerlari taldea, espezieak historikoki inguruan izan dauzen joerak aztertzeko. Gainera, teknika genetiko aurreratuak erabiliko dira intereseko espezieen arrasto genetikoa hainbat eremutan detektatzeko, ur-laginak soilik erabiliz. Zeharkako teknika honek, 4 litro ur inguru soilik batuz eta iragaziz ikerketa-taldeari aukera emoten deutso baieztatzeko aztertutako espezieetako banakoren bat eremu horretan egon dan aurreko 24 orduetan.. Metodologia hauek eta beste batzuk aldi berean aplikatzen ari dira, ahalik eta informazio gehien lortzeko, ez soilik marrazo urdinari buruz, baizik eta inguruan dagozen eta interesgarriak diran beste marrazo pelagiko batzuei buruz ere, baina behatzeko zailagoak diranak. Diziplina askoko ikerketa horrek, hainbat talde eta eragileren parte-hartzeagaz

Gizakia ez dago marrazoren dietan, eta espezie hauek urtero egiten deuskuezen erasoak hamar baino gutxiago dira mundu osoan

batera, espezie honek etorkizunean Bizkaiko golkoan bizirik iraungo dabela bermatuko dauen ezagutza osoa eta sendoa sortuko dau".

Irakurtzen amaitu dozu eta, nahiz eta zeure galderetako batzuk parte baten erantzun diran, ordu gitxi batzuk arinago existitzen zenik ez zenekien espezie horreei buruz gehiago jakiteko gogoagaz zagoz. AZTIk abian jarri dauen herritarren zientzia ekimenaren parte izatea proposatzen dozu, eta zeure esku dagoen guztian laguntzea, marrazo espezie horreen ikuspenak eta hauen egoera

zabaltzearen garrantzia ezagutaraziz. Gura barik, gizartean aldaketa bat egin gura daben personeren talde horretako kide izan gura dozu, geure ozeanoentzako etorkizun iraunkorra bermatzeko.



Maite Erauskin-Extramiana ikertzailea marrazo urdin bat markatzen euskal kostaldean. **Argazkia:** OWP

Hemen **mojoidi** esaten da



Molusku hau ia desagertuta dago geure kostaldetik, eta izen desbardinak hartzen dauz zonaldearen arabera. *Mocejón*, *ligerón* edo *macillón* dira horreetako batzuk, baina ohikoena muskuilua eta mojoidia dira Bizkaiko zenbait eremutan, esaterako Bilbon eta Busturialdea-Urdaibain. Urte osoan eros daitekegu merkatuan, akuikulturatik, arrazoizko prezioetan.

Bi oskoleko molusku familiakoa da, eta ur gazako mojoidiak be badagoz, baina, batez be, molusku hau itsasokoa da, eta itsasoaren sakonean nahiz kostaldean bizi da. Ezagutzen errazak dira, oskol solido bat dauko eta honek errai-masa bat babesten dau. Maskorrak kolore baltz urdinxka dauko eta mutur bat triangelu formakoa da eta bestea biribila. Gorputza harrapariatatik eta lehorteetatik babesten dau oskolak, eta bibalbioa da; hau da, bi pieza daukoz, mobigarriak, simetrikoak, gogorrak eta ganbilak. Barne-masa zaku-formakoa da, eta laranja-kolore zurbila edo bizia dauko, arrak edo emeak izan, hurrenez hurren.

Bere itxura, beharbada, ez da oso gurgarria lehen begi kolpean, baina interes gastronomiko handiko produktua da. Sukaldaritzan daukon zaporeak eta aldakortasunak sukaldaritzako esperientzia bikainak sorrarazten dabez, mundu osoko *chef* eta gourmetentzako produktu gogoenak dira. Hainbat modutan presta daitezke: egosiak, prijiduak, saltsetan, lurrunetan edo ketuak; funtsezkoak dira kultura askotako gastronomian.

Bere zaporeaz gain, bere nutrizino kalidadeagatik gehien estimatzen diran maskorreko moluskuak be badira. Proteina, aminoazido, mineral eta bitamina asko daukoz, kaloria giti, eta ezaugarri anti-inflamatorioak daukoz omega-3 dala eta. Orain dala 14.000 urte Santimamiñeko

kobako bizilagunek jada gozatzen eben produktu gastronomiko preziaz du hontaz, mojoidiak bezalako itsas baliabideen dietari esker.

Bi oskoleko molusku hauek berebiziko garrantzia dauke uretako ekosistemetan, iraziteko daukeen gaitasunari esker. Harriei tinko atxikitzen jakez, eta, horri esker, korrante handiko eremuetan biziraun daiek. Batzuetan lau zentimetro luze ez dan molusku txiki horrek orduko bost-zortzi litro ur irazi daiekez. Prozesu horri fitoplanktona esaten jake.

Halanda be, itsasoaren kutsadurak, mikro plastikoen eta parasitoen presentziak populazinoa murriztu dau, eta, ondorioz, gero eta gaxagoa da hauek gure kostaldean aurkitzea. Egoera horri aurre egiteko, Bizkaian Kantauri itsasoan itsas zabaleko muskuilua ekoizteko lehenengo enpresa-ekimena sortu da, besteak beste, itsas elikagai barriak sortzeko helburuagaz, hau da, eskaera handiko elikagaiak, tokikoak eta marka bihurtzeko gaitasun handikoak sortzeko helburuagaz. Ekoizpen-instalazioak Ondarroa eta Lekeitioaren arteko itsasertzean kokatzen dira eta ekimen aitzindaria da nazioartean, hainbat eragileren inplikazioagatik: administrazioa, ekoizleak eta komunitate zientifikoa.

*Bere zaporeaz gain,
bere nutrizino
kalidadeagatik
gehien estimatzen
diran maskorreko
moluskuak
be badira*

Merkatuetan saltzen diran gehienak akuikulturatik datoz, eta, horri esker, urte osoan kontsumitzen dira. Haitz-mojoidiak be aurki daitezke, baina prezio altuagoan, beren habitat naturalean harrapatutakoak. Itsaski guztien artean, eskuragarrienetako bat da. **UM**

ERREZETA

Mojoidiak saltsa berdean

OSAGIAK (2 lagunentzako)

- Kilo bat mojoidi
- Perrejila
- 2 berakatz-atal
- Ogi birrindu koilarakada bat
- Kaienako pipermin 1
- Ura
- Ardao zuria
- Oliba-olio birjina estra
- Gatza

Mojoidiak freskoak badira, garbitu eta lurrunetan irekiko doguz ur apur batez eta ardao zuri txorrotada batez. Saltsa egiten dogun bitartean erretiratu eta erreserbaturiko dogu. Egosiak erosten badoguz, pauso hau aurreratuko dogu.

Kazola batean oliba-olio txorrotada bat botako dogu. Berakatz txikitu eta apur bat gorrituko doguz piperminagaz batera. Ogi birrindu koilarakada gehitu eta buelta batzuk emongo deusaguz egosi daiten. Perrejil garbi eta oso pikatua bota eta minutu batez mugitu.

Azkenik, 1/2 baso ardao zuri jarriko dogu, sua igoko dogu alkohola lurruntzeko, eta, hagaska batez mugitzeaz utzi barik, beste 1/2 baso ur gehituko deusaga.



BBK Klima

Urdaibaiko BBK Klima parke esperientzialak, esperientzia berriak eta kanpoko instalazioak estreinatuta ditu 3. edizioan krisi klimatikoa arintzeko

BBK Klimak, Urdaibain ingurumen-kontzientzia duen esperientzia-parkeak, hirugarren urtez jarraian ireki ditu ateak, jarduera ludiko, murgiltze esperientzia eta kanpoko instalazio berriekin, dibertimenduaren, hezkuntzaren eta aisiaren bidez ohiturak eraldatzeko bultzadan aurrera egiteko.

Giza ekintzak kliman duen eragina murrizteko ohituren eraldaketa bultzatzen duen parke hau Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean dago. Busturian, hain zuzen ere eta astelehenetik igandera dago irekita 11:00etatik 19:30etara uztailan eta abuztuan, eta iraila eta urria asteburuetan (urrian 19:00ak arte).

Ingurumen hezkuntzari, berrikuntza iraunkorrari eta ekintza komunitarioari eskainitako leku honek aruten aurrerapauso bat eman du identitate klimatiko partekatua sortzeko, bisitarien dibertsioaren eta partekatutako aisialdiaren bitartez klima krisialdiak arintzeko ekimenetan parte hartzeko konpromisoan laguntzen dien bitartean.

MURGILTZE ESPERIENTZIAK ETA KANPOKO INSTALAZIOAK, BERRIKUNTZA NAGUSI GISA

Belaunaldi gazteek esperientzia dinamikoa eta teknologiko aurreratuei ongi erantzuten dietenez, jarduera berriei azken teknologiak eta metodo interaktiboak barneratzen saiatu da BBK KLIMA. Horrela, eta

azken teknologia eta metodo interaktiboak jarduera berrietan txertatuz, hirugarren edizio honetan, lehendik zeuden esperientzia murgiltzaileei, hala nola tirolina, energia eolikoa, energia undimotrizea, esaterako, hurrengoak ere gehituko zaizkie: berotegi puzgarria, zorbing balls, urmaela, hondakinen bilketa, gymkana, "Nor da nor Kliman"; scape room eguneratua; proiektzio berriak Domoan; "Paint2Life", non haurrek euren itsas pertsonaia irudikatu eta pantailara eraman ahal izango duten biziduna izan dadin; eta DIWO joko berri bat Klimaterpe eraikinean.

Gainera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean daukan kokapen pribilegiatua aprobetxatuz, BBK Klimak kanpoko instalazioak estreinatuta ditu. Uda honetan, beraz, bisitarien foodtruck gunee batez, inguruneaz eta eremu birnaturalizatuez gozatu ahal izango dute. Aipatu beharra dago ere, parkearen bisita guztia mapa-formatua duen "DIWO Pasarpote" batean jasoko dela eta bisitarien zigilatu egingo dutela, jardueretan eta esperientzietan aurrera egin ahala.

Parketik haratago planeta zaintzen jarraitzeko, BBK Klimaren jarduera guztia jokoak eta informazio gehigarria eskaintzen dituen BBK Klima app interaktiboaren bidez eta familiako erronkekin parkean esperientzia sendotzen BBK Klima Egunerorekin. ■■■

PUBLIERREPORTAJEA

EKINTZA

LUDIKOAK

- **Uztailak 21 eta 28 (20:00etan):**

Udako zinea

- **Uztailak 27, abuztuak 10 eta irailak 7 eta 28 (12:00etan.):**

"Fashion Revolution loves Klima"

Workshopa

- **Abuztuaren 1etik 31ra (astelehenetik igandera 10:30-14:30 eta 15:30-19:30)**

Igerilekuak

- **Urriak 5 (10:00etan):**

Udazkeneko zinea

- **Urriak 24 (19:00etan):**

Cine de otoño

- **Urriak 26 (11:30etan):**

Itxiera eta desfile jaia

SARRERAK

SALGAI

<https://sarrerak.bbk.eus/>
eta Kutxabankeko salmentakanaletan


- 0-2 urte: Doan
- 3-5 urte: 1€
- 6-12 urte: 7€
- 13-17 urte: 8€
- 18-64 urte: 10€
- 65tik urtetik gorakoak: 8€

- Scape room aretoa: 40€

• Igerilekua:

- Orokorra (18-64 urte): 4€
- 0-2 urte: doan
- 3-5 urte: 3€
- 17urtearteko gazteak: 3€
- 65tik urtetik gorakoak: 3€

klima
bbk



Tirolina
Klima Gymkana
Igerilekua
Negutegi puzgarria
Zorbing balls
Nor da nor?
Ihes gela
Domo proiektzioak
Foodtrucka
...eta askoz gehiago

Gozatu egun ahaztezin
batez BBK Kliman



sarrerak.bbk.eus
EROSI
ZURE SARRERAK



Etorkizuneko basoa. Argazkia: Lurguia Fundazioa

BASO-BARRITZEAREN INDARRA

klima-aldaketaren aurrean

Klima aldaketa mundu mailako arazo bat da, tokian-tokian igarten dana. EAEko kostaldean urteko 3 mm igo da itsas maila XX. mendearen bigarren erdian, eta aurreikuspenak goranzko joerari buruzkoak dira. Datu horregaz batera, ekosistemak aldatu edo tenperaturak igo egiten dira. Gure karbono-aztarna faktore eragileetako bat da. Zelan konpensau daikegu? Basobarritzea erantzunetako bat da.

Arbolaak gure aliaduak dira klima-aldaketaren aurkako borrokan. Zientifikoki frogatuta dago basoek karbono dioxidoa atmosferatik kentzen dabela eta karbonoa gehitzen deitsoela euren biomasari. Horregaitik, karbono-hustubide edo CO₂ biltegi lez hartzen dira. Baina, gainera, ezinbesteko elementu bat askatzen dabe, oxigenoa.

Matematikoki kalkulagarria da, beraz, arbolak landatzean karbonoa bahitzen dogula eta atmosferara berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten doguzela. Arbola heldu bakar batek 21 kilo karbono dioxido xurgatu daikez urtean. Horregaitik, baso-barritzea funtsezkoa da berotze globalari aurre egiteko. Konpensau al daikegu orduan gure karbono-aztarna?

Lurguia Fundazioak, Urdaibaiko Biosfera Erreserban zaintzapean dagozen eta etorkizuneko basoak lehengoratzeko prozesuan dagozen 200 hektarea inguru kudeatzen dauz. Honek, CO₂ kalkulagailu bat gehitu dau bere webgunean. Sistema honen bidez gure karbono-aztarna neutru daikegu eta geure basoetan arbola autoktonoak landatuz konpensau. Baso horreetako bat Undabason dago (Muxika). Kalkulagailuak gure karbono-aztarna minimizatzeo aholkuak emoten deuskuz, eta laneko joan-etorrietan edo gas- eta elektrizidade-kontsumoetan zenbat CO₂ isuri dogun be esaten deusku. Horrela, geure isurketak konpensatzeko zenbat arbola landatu behar doguzen jakin ahal

dogu. Undabaso proiektuak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako baso misto handiena eta Bizkaiko bigarrena sortuko dau. Baso honetako arbolak ez dira moztuko eta ehunka urtetan milioika tona karbono dioxido xurgatuko dabez.

Hainbat zuhaitz-espezie landatzean, hainbat landare, intsektu, hegazti eta ugaztunen-tzako habitatak sortzen doguz, ekosistema orekatua eta iraunkorra sustatuz. Arbola bakar bat 2,3 milioi espezie biziren euskarria izan daiteke. Horrela, zuhaitz bakoitza funtsezkoa da gure planetako biodibertsitaterako.

CO₂ kalkulagailuagaz, gure karbono-aztarna neutru daikegu eta geure basoetan arbola autoktonoak landatuz konpensau

Baso-barritzeak lurzoruaren osasuna babesten eta lehengoratzten be laguntzen dau, higadura saihesten dalako eta lurra- ren egitura hobetzen dalako. Hostoak eta materia organikoa askatzean, arbolek elikagaiekaz aberasten dabe lurra, emonkor bihurtzen dabe eta landareen hazkuntza

errazten dabe. Gainera, zuhaitzek, adaburuekaz, uiol-uretatik eta eguraldi txarretik babesten dabe lurzoria, eta sedimentuak, gehiegizko nutrienteak

eta kutsatzaileak harrapatzen dabez, eta ibaietara, lakuetara eta lurpeko ur-iturrietara iristea eragozten dabe.

Basobarritzeo ahaleginek arnas osasuneko arazoei be aurre egiten laguntzen dabe, esaterako asma eta beste gaixotasun batzuk. Basobarritutako eremuek aire naturalaren egokitzaile lez jarduten dabe. Fotosintesiaren bidez, arbolek oxigenoa be askatzen dabe, ezinbestekoa gure ongizaterako. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, munduan dagozen hamar personatik bederatzik aire kutsatua arnasten dabe.

2030erako Euskadiko Ingurumen Esparru Programa Euskadiko ingurumen-politiken iparrorratza da, eta lurralde jasangarriarako norabidea markatuko dau. Horren harira, hostozabalekaz basobarritzeo ekimenak Lurraldearen Kohesino Iraunkorreko proiektuekaz bat datoz. Proiektu horreen helburuak dira, besteak beste, ekosistema-zerbitzuak bermatzea, gizarte- eta lurralde-garapen orekatua sustatzea, Euskadiko paisaia-aniztasuna konserbatzea, ongizate-iturri lez lurraldeak daukon garrantzia nabarmentzea eta/edo klima-aldaketari lotutako mehatxu gero eta handiagoei aurre egitea, urrakortasuna murriztuz eta muturreko gertakarien aurrean erresilientzia areagotuz.



Landatzen. Argazkia: Lurguia Fundazioa

ARBOLAK LANDATZEAREN

10 INGURUMEN-ONURAK

1. Arbolek Klima-aldaketari aurre egiten deutsoe

Airearen CO2 xurgatu, biltegitatu eta oxigenoa askatzen dabe arbolek. Zuhaitz bakar batek lau personarentzako oxigeno nahikoa sortzen dau.

2. Airearen kalidadea hobetzen dabe, araztaile naturalak dira

Gas kutsatzaileak xurgatzen dabez zuhaitzek, esaterako nitrogeno oxidoa, ozonoa, amoniakoa edo sufre dioxidoa. 400m2 zuhaitz daukon lursail batek 18 personentzako oxigenoa sor daike.

3. Klima erregulatzen dabe, aide girotu naturalak dira

Berotze globalaren aurrean, zuhaitzek 5,5°-raino murrizten dabe beroa, itzala emotean eta ura askatzean.

4. Uraren kalidadea hobetzen dabe

Arbolek euri-ura bereizten dabe eta ura lurrera sartu eta iragazteko aukera emoten dabe.

5. Ura aurrezten dabe

Emoten daben itzalak ura motelago lurruntzea bideratzen dau. Zuhaitzek astean 60 litro ur behar dabez bizirauteko, eta 800 eta 1.800 litro ur artean askatzen dabez egunean.



Landatzen. Argazkia: Lurgaiia Fundazioa

6. Biodibertsidade-konserbatzaileak

Basoak ekosistema biziak dira, zuhaitzak elikagai-iturri eta basa-bizitzarako habitat dira.

7. Energia-iturri barriztagarriak

Arbolak energia-iturri barriztagarri bihur daitezke.

8. Lurzorua indartzen dabe, hondamendiak saihesten dabez

Zuhaitzak nekazaritzaren aliadu onak dira: higadura murrizten dabe, lurraren emonkortasuna areagotzen dabe, eta lurzoruari hezetasuna lortzen laguntzen deutsoe.

9. Higadura kontrolatzen dabe

Zuhaitzek aterki erraldoi lez funtzionatzen dabe, uraren erorketa moteltzen dabe, sustraiek lurra alkatuta mantentzen dabe eta lurzorua haizearen ondorioetatik babesten dabe.

10. Ekonomia eta gizarte iraunkorrak


Egurraren ustiapen iraunkorrak, egurrezkoak ez diran baso-produktuek eta ekoturismoak diru-sarrerak eta enplegu-aukerak sortzen dabez. Basobarrizteko ahaleginei esker, komunitadeek barriro be bat egin daik ee euren natura-ondareagaz, eta euren inguruarekiko harrotasun-sentimendua sustatu.



Etorbizuneko basoa. Argazkia: Lurgaiia Fundazioa



Eguneroko keinu txikiekin, energia aurreztu dezakegu



www.eve.eus

TOURDAIBAI

Urdaibaiko turismo jasangarrirako elkarte

Tourdaibai
Urdaibaiko turismo jasangarriko elkarte

ETORKIZUNAK
BATZEN GAITU
* Nos une el futuro



688 638 421
info@tourdaibai.com

Ehunka mendizale, deiadar mendien festan

Sollube mendiaren gailurrean, ekainaren 15ean, Batzar Nagusietarako deiadarra zelan egiten zan gogorazten dauen jaieguna ospatu zan. Ana Otadui Bizkaiko Parlamentuko presidentek aurtongo kirol igoeraz arduratu dan Sollube 707 mendi taldeko arduradunari emon eutson adarra. Adarrak jo ostean, Durangoko Alpino Tabira klubeko ordezkariari emon eutsoen lekukoa. Izan be, talde honek antolatuko dau datorren urteko martxa Oiz mendian. Sollube eta Oiz mendiak ez ezik, Gorbeia, Ganekogorta eta Koltza be badira deiadar mendiak. Jarduera honi buruzko aipamen historiko apurrak XV. eta XVI. mendeetakoak dira, eta metodoa honako hau zan: goizaldean su bat pizten zan eta egunsentian adarra jotzen zan bost deiadar-mendietatik, berehalako batzarraren barri emoteko. Sua soinu iristen ez zan bazterretara iristeko zan. Jakinaren gainean, batzarretako ordezkariak Gernikara joaten ziran, hurrengo egunean batzarra hasiko zan lekura. **UM**



Begoña Gangoit, 2024ko Hegaluze Saria

Bermeoko Arrain Azoka alkarteak itsas azoka honen sortzaileari, Begoña Gangoitiri, egindako lana aitortu deutso. Gaur egun herriko turismo teknikaria da, eta master amaierako lanean planteau eban Arrain Azoka. 1994an lehenengo Arrain Azoka egin zanetik, Gangoit bere antolakuntzan aritu da lanean, eta Arrain Azoka sektoreko azoka entzutetsu eta erreferente bihurtzea lortu dau. 2024an, hogeita hamargarren edizinoa ospatu da, eta Begoña Gangoitik 30 urte hauetan egindako talde-lana nabarmendu gura izan dau, eta azoka "arrantza-sektorean izandako eraldaketa baten ondorioz" sortu zala gogorazi dau. **UM**



Gernika-Lumok bere ondare kulturala babestuko dau bere lehen arte-inbentarioagaz

Gernika-Lumoko Udalak eta Kultur Etxeak euren ondare kulturala zaintzen jarraituko dabe, lehen arte-inbentarioko proiektuagaz. Udalerriko arte-lan bilduma hainbat udal eraikinetan dago banatuta, besteak beste, Udaletxean, Kultur Etxean edo Calzada Egoitzan. Bilduma honetan Juan de Aróstegui, Ángel Larroque, Nestor Basterretxea, Jesús Mari Lazkano eta Miguel Marina artista ezagunen lanak gordeko dira. Bertako eta nazioarteko artisten ordezkari zabala be badauko. Inbentarioan 500 pieza jasoko dira, eta horreetako bakoitzari argazki zehatza atarako jako, eta egilearen, tituluaren, teknikaren eta obra motaren arabera sailkatuko da. Obren katalogoa Kultur Etxeko www.kulturagernika.eus webgunearen bidez eskuratu ahal izango da. Prozesua urte amaierarako amaituta egotea espero da. Funts hori ikertzaileek, ikasleek eta arte-zaleek kontsultatu ahal izango dabe. **UM**



Euskal Diasporaren Historia Artearen bidez Euskal Herria museoan

"Arturo Acebal Idigoras. Euskadi Argentina" erakusketak euskal kultura Argentinara eramane euskal artisten historia kontatzen dau. Euskal Herria Museoak, Gernika-Lumon, erakusketa hau hartuko dau 2024ko azaroaren 24ra arte. Erakusketak Arturo Acebal Idigoras artistaren figura berreskuratzen dau. Bere pinturen, marrazkien, zeramika-lanen, brontzezko lanen eta dokumentu originalen bidez, erakusketak emozinoz betetako bidaia bat egitera eramaten dauz bisitariak: euskal kultura eta argentinara. Arturo Acebal Idigoras erbesterratuak euskal sortzaileen komunitadeko kidea izan zan, eta bizirik mantendu ebe euskal herriaren nortasuna eta espiritua, urrun egon arren. **UM**



Bagilaren 1etik irailaren 30era, hondartzadenboraldia Bizkaian

Sorospen-zerbitzuaren barruan 169 persona dagoz lanean, personeren segurtasuna zaintzeko. Aurtongo nobedadeetako bat honakoa izan da: bainu lagundua zerbitzua zortzi hondartzatan (besteak beste, Mundakako Laidatxun) finkatzea, 11:00etatik 19:00etara, erreserba-sistema sinpleago batez. Erabiltzaileen erregistroa aurrez aurre egingo da bainurako asistentzia emoteko hareatzetan prestatutako karpan. Hondartzei buruzko webgunea eta informazio-app-a -BizkaiaUP- eguneratu dira, informazioa denbora errealean emoteko. Webgune barriak hondartzaren geolokalizazioari buruzko datu grafikoak eta hareatza bakoitzera iristeko bidea lortzeko biltzailea eskaintzen dauz. Konsultatzen ari dan hondartzak bisita-kopuru handia badauko, webguneak okupazio txikiagoa daukeen gertuko hondartzaren alternatibak eskaintzen dauz. **UM**

E
EGUREN

ÓPTICA
CENTRO AUDITIVO

GERNIKA-LUMO
Domingo Bernaola, 1
94 625 03 23 / 94 625 04 51

QR code

Facebook, Instagram icons

ARROLAKO OPPIDUM-AREN INTERPRETazio ZENTROA

ARRO
LAGUNE

IGANDE GUZTIETAN
TODOS LOS DOMINGOS
10:00 - 14:00
ARRATZU

QR code

UM logo

QR code

SUSTABIZ

gure kirolak eta kultura diren herri kirolak sustatuz

Eusko Jaurlaritzak ekonomia urdina bultzatzen dau ingurumenaren iraunkortasunerako, tokiko ekonomiarako eta arrantza-komunidadeetako bizi-kalitatea hobetzeko laguntzekaz

Bi ardatz nagusi: inbersino produktiboak eta enplegua sortzea

"Ekonomia urdina" kontzeptuak hazkunde ekonomikorako, bizitza eta enpleguaren hobekuntzarako baliabide ozeanikoen erabilera jasangarriaren alde egiten dau, eta, aldi berean, itsas ekosistemaren osasuna zaintzen dau. Helburu horreekaz, Eusko Jaurlaritzak urteroko laguntza-lerro bat jarri dau arrantza-udalerrien eskura, arrantza-sektorearen eta haien komunitaddeen iraunkortasuna sustatzen daben, tokiko ekonomia jasangarria bultzatzen daben eta arrantza-udalerrietan bizi diran personen bizi-kalitatea bultzatzen daben proiektuei laguntzeko.

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak babesa emoten deutse euskal arrantza-udalerriei eta sektorea osatzen dauen komunitade osoari. Ildo horretan, 2024rako dirulaguntzen Agindu bat argitaratu dau. Laguntza horreek "Arrantza Eremuen Garapen Iraunkorrerako Tokiko Garapen Parte-hartzaileerako Estrategian oinarritzen dira, Europako Itsas eta Arrantza eta Akuikultura Funtzaren" (FEMPA) esparruan. Guztira, 2024ko ekitaldian 3 milioi euro bideratu dira horretarako. Agindu hau hurrengo urteetan gaitzea aurreikusuten da.

17 arrantza-udalerrik erabil daike laguntza-plan hau euren garapen iraunkorrerako. Busturialdea-Urdaibain: Bermeo, Elantxobe eta Mundaka. Zerrenda hau Berriatuak, Getariak, Hondarribiak, Lekeitiok, Lemoizek, Mutrikuk, Ondarroak, Oriok, Pasaiak, Plentziak, Santurtzik, Zierbenak, Zumaiak eta Donostiako portuak osatzen dabe.

2023ko urriaren 6an, Eusko Jaurlaritzak izendatu eban Itsas Garapen Elkartearen tokiko arrantza-ekintzako taldea (GALP) eta haren partaidetzazko toki-garapeneko



estrategia, "Ekonomia urdin jasangarri-rako trantsizinoa" lelopean. "Trantsizino" hau, arrantza-sektoreari eta haren jarduera ekonomikoaren dibersifikazioari laguntzean, lurraldearen hazkunde urdina ekarriko daben jarduera ekonomikoak sustatzean eta arrantza-komunitaddeen ekonomia urdinerako trantsizinoa bultzatzean oinarritzen da.

Ekonomia urdin jasangarria eta lehiakorra bultzatzeko bi laguntza-ildo nagusi ezarri dira: Produktzio inbersinoak, enpresa eta negozio-lerro barriak sortu eta martxan jartzeko. Arrantza-sektorearen jarduera dibertsifikatzen daben ekimenak eta arrantza-udalerrien ekonomia urdina sustatzera eta haztera zuzendutako ekimenak lehenetsiz; eta enplegua sortzea, inoiz enplegurik izan ez daben edo enplegua galdu daben langileak besteren kontura kontratatzea, arrantza-sektorea dibersifi-

katzen daben jardueretan edo ekonomia urdinagaz zuzenean lotuta dagozen ekimenetan.

Era berean, jarduera independenteak sortzea aurreikusten dau, langile autonomoen parte-hartzea edo gizarte-ekonomiako araubide juridikoaren pean dagozen enpresak sartzeko.

Ekonomia urdinak sistema ekonomiko barri bat sustatu gura dau. Sistema barri honek itsas ingurunean laguntza zuzena daukeen sektore ekonomikoak (arrantza, itsas garraioa, akuikultura edo energiaren sorrera) eta lehorrean dagozenak (portuak, ontziolak, kontserba-industria, itsas-ontzi-azpiegiturak edo itsas turismoa...) batuko dauz. Bertan, arrantza-komunitaddeek protagonista izan beharko lirateke trantsizino honetan, aldaketaren benetako eragile bihurtuz. **UM**

URDAIBAICO GERRARI ETA GERRA-GATAZKEI BURUZKO IBILBIDE GIDATU APARTA

Azken teknologiarekin. Ibilbideko sentsazio guztiez gozatzeko aukera ematen dizun APP-a.



ARKEOLOGIA BELIKOA Urdaibain Bakerako ikuspegia

Manu Leguineche (Arratzu 1941 – 2014), gerra-korrespontsal ospetsua, inspirazio-iturria da. Bere kronika eta gogoetek laguntzen dute, Arrolako kastroaren gotorlekuari buruzko istorioak, kortsarioen erasoak, Erdi Aroko gatazkak, karlistaldiak, Gernikako bonbardaketa, gerra zibila...

- + Defentsa. Gotorleku baten bizitzea
- + Bakerako inspirazioa
- + Itsasoa. Aberastasun eta gatazka iturri

Informazioa: 634.243.762
visiturdaibai@nuevaeuropa.eus
www.visiturdaibai.com



Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako proiektua.



bizkaia.eus/eu/oma-basoa
Erreserba egin Reserva tu visita



Oma Basoa

El Bosque de Oma

Agustín Ibarrolak sortutako obra
Obra creada por Agustín Ibarrola
© Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia